Kulturaren Euskal Behatokiaren estatistika eta azterketa bilduma
Collection de Statistiques et d'Études culturelles du Observatoire Basque de la Culture

# ESTATISTIKA

# Kultura Ohiturak Praktikak eta Kontsumoa

## Ipar Euskal Herria

## 2007 ▪ 2008

Ipar Euskal Herria | Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari estatistika

Pays Basque Nord | Statistiques d'habitudes, pratiques et consommation culturelle

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA — DEPARTAMENTO DE CULTURA

ISBN 978-84-457-2843-7

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Salneurria: 12€

# Ipar Euskal Herriko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008

Kulturaren Euskal Behatokiaren estatistika eta azterketa bilduma
Collection de Statistiques et d'Études culturelles du Observatoire Basque de la Culture

KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Vitoria - Gasteiz, 2008

Lan honen bibliografia-erregistroa **Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren** katalogoan aurki daiteke:
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>.

| | |
|---|---|
| Argitalraldia: | 1.a 2008ko azaroa |
| Ale-kopura: | 750 |
| | |
|---|---|
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Kultura Saila |
| | |
|---|---|
| Internet: | www.euskadi.net |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Diseinua eta maketazioa: | AIC, Gestión de Capital Intelectual S.A. - www.factoria-aic.com |
| Inprimatzea: | Gráficas Aratz, Avda. Madrid, 20 - 20.111 - Donostia - Gipuzkoa |
| ISBN: | 978-84-457-2843-7 |
| Lege-gordailua: | SS 1742 2008 |

# Aurkibidea

**Aurkezpena** 5

**Hitzaurrea** 9

**Irudien Aurkibidea** 13

**1.** TESTUINGURUA: OINARRIZKO ADIERAZLEAK 18

**2.** KULTUR OHITURAK, JARDUERAK ETA KONTSUMOA IPAR EUSKAL HERRIAN: EMAITZA NAGUSIAK 24

**3.** IRAKURKETA ETA LIBURUTEGIAK 42

**4.** MUSEOAK ETA ARTE-ZENTROAK 58

**5.** MUSIKA 66

**6.** IKUS-ENTZUNEZKOAK 84

**7.** ZINEMA 94

**8.** TAULA GAINEKO IKUSKIZUNAK ETA BERTSOLARITZA 102

**9.** METODOLOGIA 112

## Aurkezpena

Miren Azkarate
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua

Pantxoa Etchegoin
Euskal Kultur Erakundeko Zuzendaria

Aspaldidanik zegoen kultura-estatistika propioa izateko premia larria, Euskal Herriko kultura-espazioaren eremu soziopolitiko bakoitzeko zein Euskal Herri osoko kultura-eskaintzaren eta eskaeraren jarraipena egiten lagunduko lukeena.

Hori dela eta, Kulturaren Euskal Behatokia martxan jarri ondoren, hasierako lanetako bat gure Esparru Estatistikoa diseinatzea izan zen. Eremu horretan lan egiten duten nazioarteko zein estatu mailako erakundeak erabiltzen ari diren sailkapenak eta aldagaiak berriz interpretatu, eta gure inguruko berezitasunetara egokitu behar ziren. Esparru horrek lagunduko du kultura-jardueren (eskaintza), jarrera sozialen (eskaera, zentzu zabalean) eta zeharkako elementuen zein elementu partikularren aldagai orokorren eta sektorialen jarraipena egiten, horiek guztiek eratzen baitute eremu soziokultural baten kultura.

Hain zuzen ere, Kulturaren Euskal Planak kultura-praktiken eta kontsumo-ohituren ikerketari ekiteko beharra nabarmendu zuen. Lehen ikerketa hori egina dago jada. Lan handi eta sakona egin ondoren, Behatokiak lehen 2007-2008 Kultura-ohitura, -praktika eta -kontsumoari buruzko inkesta-ren emaitzak aurkeztu ditu. Inkesta hori egiteko, lehen aldiz zehaztu dituzte kontzeptu-esparrua, inkesta-sistema —ondoren garatu eta ustiatzeko aukerarekin— zein emaitza esanguratsuen hautaketa.

Inkesta horrek Euskal Herri osoko kultura-ohituren, -praktiken, -kontsumoen eta itxaropenen irudi zehaztua eskaintzen die, lehen aldiz, kulturari





lotutako erakunde eta entitate guztiei, zein jendeari orokorrean. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, eta Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko eremuetan, kultura-eskaintzari buruz -ondarea, arteak, bertoko ekoizpena, jaialdi edo ekitaldiak eta kultura eratzen duten zeharkako esparruak- egin diren jarraipen eta azterketen ondorio zuzena izan da. Lehenengo aurrerapena Kultura 07 urtekarian aurkeztu zen, eta Kultura 08 eta beste hainbat argitalpenetan izango du jarraipena; esaterako, argitalpen bizkorreko ekitaldien sei hileko edo urteko eskaintzan, edo Estatistiken eta Kultura ikerketen Bildumaren hurrengo zenbakietan.

Euskal Herriko kultura eskaeraren azterketa, bereziki bertoko kulturara eta euskarazko kontsumora lotutako alderdiena, Euskal Autonomia Erkidegoko lur-eremua baino harago doa. Ikerketa hau lau liburukitan jaso da, eta laguntzaile izan dira Kulturaren Euskal Behatokia -Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura Sailaren menpekoa-, Euskal Kultur Erakundea -EKE- eta Eusko Ikaskuntza. Azken erakunde bi horiek Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako ikerketak sustatu dituzte, hurrenez hurren. Lankidetza horregatik izan ez balitz, ez litzateke lortu ahal izango aurkeztu den bezalako sakontasuneko panoramika. Horrela, lurralde guztietan zenbait item berdinak izanik, elementu homogeneoak gehitu eta barne alderaketak egin ahal izan dira.

Aldez aurreko ikerketa zabal eta dibertsifikatuari, ikertutako hiru lurralde-eremuetatik bakoitzeko argazki partzialei eta kultura-erabilpenen adierazle garrantzitsuenen hautaketa zorrotzari esker

lortu da Euskal Herriko eskaeraren ikuspegi kuantitatiboa izatea. Oinarri sendo horrek beste balorazio kualitatibo batzuk behar ditu, Euskal Autonomia Erkidegoan, Ipar Euskal Herria eta Nafarroan zein Euskal Herriko kultura-espazio osoan eraiki ahal izateko sektore bereko beste sinergia batzuk, politika osagarriak edo partekatuak, lankidetza puntualak edo sistematikoak eta garapen erabilgarriak.

Miren Azkarate
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua

Pantxoa Etchegoin
Euskal Kultur Erakundeko Zuzendaria





## Hitzaurrea



2008an ekin zion Kulturaren Euskal Behatokiak Kulturari buruzko estatistikak eta azterketak bildumari, kulturaren sektorearen gaineko ikerketa eta azterketa propioek (kualitatiboak zein kuantitatiboak) sortzen dituzten analisi eta emaitzak hedatzeko asmoz betiere.

Bildumako lehen argitalpenean *Euskal Herriko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko inkesta, 2007-2008* lanaren emaitzak ageri. Herritarren ohitura kulturalak ezagutzea du xede inkestak, euskal kulturaren kontsumoari dagozkionak batik bat. Lau liburuki ditu: Euskal Autonomia Erkidegoari, Nafarroako Foru Erkidegoari, Ipar Euskal Herriari eta Euskal Herri osoari dagozkionak.

Jarduera estatistiko ofizial bihurtzea du xede azterketak, eta bost urtean behin egingo da, herritarren ohitura kulturalen bilakaera ikusteko. Eurostat-ek partaidetza kulturalaz finkatutako irizpideen arabera egiten da ikerketa; hartara, lehendik egindako antzeko beste batzuekin aldera daiteke.

Oinarrizko bi kontzeptu sakonago jorratzeko balio izan digu arketa estatistiko honek: batetik, ohitura kulturalak, hots, herritarren portaera produktu eta zerbitzu kultural batzuekiko; bestetik, jarduera kulturalak, hau da, denbora-epe jakin bateko kultura-kontsumoaren maiztasuna eta intentsitatea. Horrekin batera, jarduera edo zerbitzu kultural jakin batzuek zenbateko arreta edo gogobetetze-maila eragiten duten ere aztertu du ikerketak.

Ipar Euskal Herriko hamabost urtetik gorako 1.338 laguni egin zaie inkesta. Sexua, adina, hizkuntza-gaitasuna eta bizilekua hartu dira irizpidetzat populazio-multzoak kultura-ondasun eta -zerbitzuen kontsumoaren arabera bereizteko. Inkestak jaso duen datu-multzo

handia eta haien interpretazio-aukera guztiak ikusirik, azterketa osagarriak egitekoak gara, talde, sektore edo lurraldeka.

Bederatzi kapitulutan dago banatuta azterketako informazio aipagarriena. Lehenbizikoak, Ipar Euskal Herriko biztanleria-egitura, biztanleen hizkuntza-gaitasuna eta etxeetako kultura-ekipamendua hartzen ditu testuingurutzat.

Bigarren atalean, inkestako emaitza nagusiak jorratu ditugu: jarduera kulturalekiko interesa, biztanleen kultura-ohiturak eta kontsumoa, euskal produktuen kontsumoa, Interneten erabilera kulturari dagokionez, eta herritarren jarduera amateurrak. Bestalde, Ipar Euskal Herriko eta Europako Batasuneko emaitzen arteko oinarrizko konparaketa bat ere badu.

Hurrengo ataletan, berriz, sektorekako azterketa espezifikoak daude, gai hauei buruzkoak: irakurketa eta liburutegiak, museoak eta arte-zentroak, musika, ikus-entzunezkoak, zinema eta, azkenik, taula ganineko ikuskizunak eta bertsolaritza. Amaieran, aipamen metodologiko bat du argitalpenak, lanaren fitxa teknikoarekin.

Laburpen honen osagarri diren inkestaren emaitza xehatuak, Euskal Kultur Erakundearen web gunean (www.eke.org) eta Behatokiaren web gunean (www.euskadi.net/kulturabehatokia) dituzue.

**Kulturaren Euskal Behatokia**
*Gasteizen, 2008ko azaroan*

# Irudien Aurkibidea





## 1.


| | | |
|---|---|---|
| **1. irudia.** | 1999ko Ipar Euskal Herriko biztanleen piramidea, sexuaren eta adinaren arabera (%) | 18 |
| **2. irudia.** | Ipar Euskal Herriko 15 urteko edo gehiagoko biztanleria lurraldeka 1999 (%) | 19 |
| **3. irudia.** | Ipar Euskal Herriko biztanleria hizkuntz gaitasunaren arabera 2006 (%) | 19 |
| **4. irudia.** | Ipar Euskal Herriko biztanleria hizkuntz gaitasunaren arabera, eremuka 2006 (%) | 19 |
| **5. irudia.** | Pertsonak etxeko ikus-entzunezko eta soinu-ekipamenduaren arabera (%) | 20 |
| **6. irudia.** | Pertsonak etxeko IKT ekipamenduaren arabera lurraldeka (%) | 20 |
| **7. irudia.** | Pertsonak sarerako konexio motaren arabera (%) | 21 |
| **8. irudia.** | Liburu eta CDren eskuragarritasuna etxeetan (%) | 21 |
| **9. irudia.** | Pertsonak etxean duten CD eta liburu kopuruaren arabera (%) | 21 |


## 2.


| | | |
|---|---|---|
| **10. irudia.** | Kultur jarduerekiko interes-maila (batez bertzekoa) | 24 |
| **11. irudia.** | Kultur jarduerekiko interes-maila Behe Nafarroan (batez bertzekoa) | 25 |
| **12. irudia.** | Kultur jarduerekiko interes-maila Lapurdin (batez bertzekoa) | 25 |
| **13. irudia.** | Kultur jarduerekiko interes-maila Zuberoan (batez bertzekoa) | 25 |
| **14. irudia.** | Pertsonak kultur jarduerak gauzatzeko ohituraren arabera, azken urtean, Ipar Euskal Herrian (%) | 26 |
| **15. irudia.** | Pertsonak kultur jarduerak gauzatzeko ohituraren arabera, azken urtean, Behe Nafarroan (%) | 27 |
| **16. irudia.** | Pertsonak kultur jarduerak gauzatzeko ohituraren arabera, azken urtean, Lapurdin (%) | 27 |
| **17. irudia.** | Pertsonak kultur jarduerak gauzatzeko ohituraren arabera, azken urtean, Zuberoan (%) | 27 |
| **18. irudia.** | Kontzertuetara joateko ohitura dutenen artean, gehiagotan ez joateko arrazoiak (erantzun bat baino gehiago) (%) | 28 |
| **19. irudia.** | Zinemara gehiagotan ez joateko arrazoiak (erantzun bat baino gehiago) (%) | 28 |
| **20. irudia.** | Taula gaineko ikuskizunetara gehiagotan ez joateko arrazoiak (erantzun bat baino gehiago) (%) | 28 |
| **21. irudia.** | Azken hilabetean zenbat joan den liburutegira batez bertze lurraldeka | 29 |
| **22. irudia.** | Azken hilabetean zenbat liburu irakurri den batez bertze lurraldeka | 29 |
| **23. irudia.** | Telebista ikusten eta irratia entzuten zenbat oren pasatzen den batez bertze asteko, lurraldeka | 29 |
| **24. irudia.** | Astean musika entzuten zenbat oren pasatzen den batez bertze lurraldeka | 30 |
| **25. irudia.** | Azken hiruhilekoan, zinemara zenbat aldiz joan diren batez bertze lurraldeka | 30 |
| **26. irudia.** | Azken hiruhilekoan, antzerkira zenbat aldiz joan den batez bertze lurraldeka | 30 |
| **27. irudia.** | Azken hiruhilekoan zenbat liburu erosi den batez bertze lurraldeka | 31 |
| **28. irudia.** | Azken hiruhilekoan liburuak irakurri eta erosi dituztenak lurraldeka (%) | 31 |
| **29. irudia.** | Azken hiruhilekoan musika erosi dutenak lurraldeka (%) | 31 |
| **30. irudia.** | Elebidunak azken hiruhilekoan euskal musikaren kontsumoaren arabera lurraldeka (%) | 32 |
| **31. irudia.** | Elebidunak euskarazko kultur jarduerren arabera lurraldeka (%) | 32 |
| **32. irudia.** | Elebidunak bertso-saioetara joateko duten maiztasunaren arabera (%) | 32 |
| **33. irudia.** | Interneten euskarazko edukietara sartzen diren elebidunak lurraldeka (erantzun bat baino gehiago) (%) | 33 |
| **34. irudia.** | Pertsonak kultura kontsumitzeko Internetarako sarbidearen arabera lurraldeka (%) | 34 |
| **35. irudia.** | Kultura kontsumitzeko Internet erabiltzen dutenak sexua, adina, hizkuntz gaitasuna, ikasketa-maila eta herriaren neurriaren arabera (%) | 35 |
| **36. irudia.** | Pertsonak Interneteko kultur edukietarako sarbidearen arabera (%) | 35 |
| **37. irudia.** | Pertsonak kultur jarduеretan izandako parte-hartzearen arabera, azken urtean, lurraldeka (%) | 36 |
| **38 irudia.** | Azken urtean Ipar Euskal Herrian kultur jarduеretako parte-hartze maila (%) | 36 |
| **39. irudia.** | Azken urtean Behe Nafarroan kultur jarduеretarako parte-hartze maila (%) | 36 |
| **40. irudia.** | Azken urtean Lapurdin kultur jarduеretarako parte-hartze maila (%) | 37 |
| **41. irudia.** | Azken urtean Zuberoan kultur jarduеretarako parte-hartze maia (%) | 37 |
| **42. irudia.** | Azken urtean bertze kultur jarduera batzuetan parte hartu dutenak adinka (%) | 37 |
| **43. irudia.** | Pertsonak azken urtean bertze kultur jarduera batzuetan izandako parte hartzearen arabera, adinka (%) | 38 |
| **44. irudia.** | Ipar Euskal Herriko eta Europako kultur adierazleen konparaketa (%) | 38 |


## 3.


| | | |
|---|---|---|
| **45. irudia.** | Pertsonak irakurketarekiko interesaren arabera (%) | 46 |
| **46. irudia.** | Irakurketarekiko interes-maila, lurraldeka (batez bertzekoa) | 46 |
| **47. irudia.** | Irakurketarekiko interes-maila, sexuaren arabera (batez bertzekoa) | 46 |
| **48. irudia.** | Irakurketarekiko interes-maila, adin-tartearen arabera (batez bertzekoa) | 46 |

**49. irudia.** Irakurketarekiko interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batez bertzekoa) 47
**50. irudia.** Pertsonak liburuak irakurtzeko ohituraren arabera (%) 47
**51. irudia.** Aisiari buruzko liburuak irakurri ohi dituztenak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren, eta herriaren neurriaren arabera (%) 47
**52. irudia.** Irakurtzeko ohitura dutenak hilabetean irakurri duten liburu-kopuruaren arabera (%) 48
**53. irudia.** Elebidunak euskarazko liburuen irakurketaren arabera, lurraldeka (%) 48
**54. irudia.** Elebidunak euskarazko liburuen irakurketaren arabera, sexuaren arabera (%) 48
**55. irudia.** Elebidunak euskarazko liburuen irakurketaren arabera, adin-tartearen arabera (%) 48
**56. irudia.** Pertsonak azken hiruhilekoan erositako liburuen arabera (%) 49
**57. irudia.** Pertsonak liburuak erosteko tokiaren arabera, lurraldeka (erantzun bat baino gehiago) (%) 49
**58. irudia.** Pertsonak egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko ohituraren arabera (%) 49
**59. irudia.** Egunkariak irakurri ohi dituztenak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%) 50
**60. irudia.** Aldizkariak irakurri ohi dituztenak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%) 50
**61. irudia.** Egunkariak interesa sortzen dien albistearen arabera irakurtzen dituztenak (erantzun bat baino gehiago) (%) 51
**62. irudia.** Aldizkariak zaletasunen arabera irakurtzen dituztenak (erantzun bat baino gehiago) (%) 51
**63. irudia.** Elebidunak egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko gustukoago duten hizkuntzaren arabera (%) 51
**64. irudia.** Pertsonak egunkariak eta aldizkariak eskuratzeko moduaren arabera (erantzun bat baino gehiago) (%) 51
**65. irudia.** Pertsonak liburutegiekiko interes-mailaren arabera (%) 52
**66. irudia.** Liburutegiekiko interes-maila, lurraldeka (batez bertzekoa) 52
**67. irudia.** Liburutegiekiko interes-maila, sexuaren arabera (batez bertzekoa) 52
**68. irudia.** Liburutegiekiko interes-maila, adin-tartearen arabera (batez bertzekoa) 52
**69. irudia.** Liburutegiekiko interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batez bertzekoa) 52
**70. irudia.** Pertsonak liburutegira/mediatekara joaten diren maiztasunaren arabera (%) 53
**71. irudia.** Liburutegira/mediatekara joan ohi direnak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera arabera (%) 53
**72. irudia.** Liburutegira/mediatekara joan ohi direnak, bisita-kopuruaren arabera (%) 53
**73. irudia.** Liburutegira/mediatekara joan ohi direnak, bisita-kopuruaren eta adin-tartearen arabera (%) 54
**74. irudia.** Pertsonak liburutegira/mediatekara joateko duten arrazoiaren arabera, lurraldeka (erantzun bat baino gehiago) (%) 54
**75. irudia.** Liburutegira/mediatekara joatea errazteko zenbait alderdi hobetu behar direla uste dutenak, lurraldeka (erantzun bat baino gehiago) (%) 55
**76. irudia.** Pertsonak liburutegiaren/mediatekaren asebetetze-mailaren arabera, lurraldeka (%) 55

**4.**

**77. irudia.** Pertsonak museoekiko eta arte-zentroekiko interes-mailaren arabera (%) 60
**78. irudia.** Museoekiko eta arte-zentroekiko interes-maila, lurraldeka (batez bertzekoa) 60
**79. irudia.** Museoekiko eta arte-zentroekiko interes-maila, sexuaren arabera (batez bertzekoa) 60
**80. irudia.** Museoekiko eta arte-zentroekiko interes-maila, adin-tartearen arabera (batez bertzekoa) 60
**81. irudia.** Museoekiko eta arte-zentroekiko interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batez bertzekoa) 61
**82. irudia.** Pertsonak museoetara, arte-galerietara eta erakusketetara joateko duten ohituraren arabera (%) 61
**83. irudia.** Museoetara joan ohi diren pertsonak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%) 61
**84. irudia.** Arte-galerietara eta erakusketetara joan ohi direnak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%) 62
**85. irudia.** Museoetara, arte-galerietara eta erakusketetara joan ohi direnak bisita-kopuruaren arabera (%) 62
**86. irudia.** Museora egindako bisitak tokiaren arabera, lurraldeka (%) 62
**87. irudia.** Museora egindako bisitak tipologiaren arabera, lurraldeka (%) 63
**88. irudia.** Museora joan ohi direnak asebetetze-mailaren arabera, lurraldeka (%) 63

**5.**

**89. irudia.** Pertsonak, musikarekiko interes-mailaren arabera (%) 70
**90. irudia.** Musikarekiko interes-maila, lurraldeka (batez bertzekoa) 70
**91. irudia.** Musikarekiko interes-maila, sexuaren arabera (batez bertzekoa) 70
**92. irudia.** Musikarekiko interes-maila, adin-tartearen arabera (batez bertzekoa) 71
**93. irudia.** Musikarekiko interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batez bertzekoa) 71

**94. irudia.** Pertsonak musika entzuteko ohituraren arabera (%) 71
**95. irudia.** Musika entzun ohi dutenak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%) 72
**96. irudia.** Musika entzun ohi dutenak astean entzuten duten oren-kopuruaren arabera (%) 72
**97. irudia.** Musika entzun ohi dutenak astean entzuten duten oren-kopuruaren eta adin-tartearen arabera (%) 72
**98. irudia.** Musika entzun ohi dutenak erabiltzen dituzten medioen arabera (erantzun bat baino gehiago) (%) 73
**99. irudia.** Musika entzun ohi dutenak erabiltzen dituzten medioen eta adin-tartearen arabera (erantzun bat baino gehiago) (%) 73
**100. irudia.** Musika entzun ohi dutenak musika entzun ohi duten tokiaren arabera (erantzun bat baino gehiago) (%) 73
**101. irudia.** Musika entzun ohi dutenak musika entzun ohi duten tokiaren eta adin-tartearen arabera (erantzun bat baino gehiago) (%) 73
**102. irudia.** Musika entzun ohi dutenak beren zaletasunen arabera (erantzun bat baino gehiago) (%) 74
**103. irudia.** Musika entzun ohi dutenak beren zaletasunen eta adin-tartearen arabera (erantzun bat baino gehiago) (%) 74
**104. irudia.** Elebidunak euskal musika entzuteko ohituraren arabera, lurraldeka (%) 75
**105. irudia.** Elebidunak euskal musika entzuteko ohituraren arabera, sexuaren arabera (%) 75
**106. irudia.** Elebidunak euskal musika entzuteko ohituraren arabera, adin-tartearen arabera (%) 75
**107. irudia.** Pertsonak musika erosteko ohituren arabera (%) 76
**108. irudia.** Musika erosi ohi dutenak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%) 76
**109. irudia.** Pertsonak erosi ohi duten musika-motaren arabera (erantzun bat baino gehiago) (%) 77
**110. irudia.** Pertsonak erosi ohi duten musika-motaren eta adin-tartearen arabera (erantzun bat baino gehiago) (%) 77
**111. irudia.** Pertsonak musika erosteko tokiaren arabera, lurraldeka (erantzun bat baino gehiago) (%) 78
**112. irudia.** Pertsonak musika erosi ohi duten tokiaren eta adin-tartearen arabera (%) 78
**113. irudia.** Elebidunak euskal musika erosteko ohituraren arabera, lurraldeka (%) 78
**114. irudia.** Elebidunak euskal musika erosteko ohituraren eta sexuaren arabera (%) 78
**115. irudia.** Elebidunak euskal musika erosteko ohituraren eta adin-tartearen arabera (%) 79
**116. irudia.** Pertsonak musika-kontzertuetara joateko ohituraren arabera (%) 79
**117. irudia.** Musika-kontzertuetara joan ohi direnak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntza gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%) 79
**118. irudia.** Kontzertuetara joan ohi direnak azken hiruhilekoko kontzertu-kopuruaren arabera (%) 80
**119. irudia.** Kontzertuetara joan ohi direnak musika-motaren arabera (erantzun bat baino gehiago) (%) 80
**120. irudia.** Kontzertuetara joan ohi direnak musika-motaren eta adin-tartearen arabera (erantzun bat baino gehiago) (%) 80
**121. irudia.** Kontzertuetara joan ohi direnak kontzertuak entzun ohi dituzten tokien arabera, lurraldeka (erantzun bat baino gehiago) (%) 81
**122. irudia.** Pertsonak kontzertuetara ez joateko arrazoi nagusiaren arabera, lurraldeka (erantzun bat baino gehiago) (%) 81
**123. irudia.** Euskal musikako kontzertuetara joaten diren elebidunak, lurraldeka (%) 82
**124. irudia.** Euskal musikako kontzertuetara joaten diren elebidunak, sexuaren arabera (%) 82
**125. irudia.** Euskal musikako kontzertuetara joaten diren elebidunak, adin-tartearen arabera (%) 82


**6.**


**126. irudia.** Telebista ikusten pasatako orenak (%) 86
**127. irudia.** Telebista ikusten pasatako orenak lurraldeka (batez bertzekoa) 86
**128. irudia.** Telebista ikusten pasatako orenak sexuaren arabera (batez bertzekoa) 86
**129. irudia.** Telebista ikusten pasatako orenak adin-tartearen arabera (batez bertzekoa) 87
**130. irudia.** Telebista ikusten pasatako orenak hizkuntz gaitasunaren arabera (batez bertzekoa) 87
**131. irudia.** Pertsonak gustuko telebista-saioen eta sexuaren arabera (erantzun bat baino gehiago) (%) 87
**132. irudia.** Pertsonak gustuko telebista-saioen eta adin-tartearen arabera (erantzun bat baino gehiago) (%) 88
**133. irudia.** Irratia entzuten pasatako orenak (%) 89
**134. irudia.** Irratia entzuten pasatako orenak lurraldeka (batez bertzekoa) 89
**135. irudia.** Irratia entzuten pasatako orenak sexuaren arabera (batez bertzekoa) 89
**136. irudia.** Irratia entzuten pasatako orenak adin-tartearen arabera (batez bertzekoa) 90
**137. irudia.** Irratia entzuten pasatako orenak hizkuntz gaitasunaren arabera (batez bertzekoa) 90
**138. irudia.** Pertsonak gustuko irrati-saioen eta sexuaren arabera (erantzun bat baino gehiago) (%) 90
**139. irudia.** Pertsonak gustuko irrati-saioen eta adin-tartearen arabera (erantzun bat baino gehiago) (%) 91
**140. irudia.** Biztanleria elebidunak euskarazko telebista ikusten pasatako denbora (%) 92
**141. irudia.** Biztanleria elebidunak euskarazko irratia entzuten pasatako denbora (%) 92






## 7.

**142. irudia.** Pertsonak zinemarekiko interes-mailaren arabera (%) 96
**143. irudia.** Zinemarekiko interes-maila, lurraldeka (batez bertzekoa) 96
**144. irudia.** Zinemarekiko interes-maila, sexuaren arabera (batez bertzekoa) 96
**145. irudia.** Zinemarekiko interes-maila, adin-tartearen arabera (batez bertzekoa) 96
**146. irudia.** Zinemarekiko interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batez bertzekoa) 96
**147. irudia.** Pertsonak zinemara joateko duten ohituraren arabera (%) 97
**148. irudia.** Zinemara joan ohi direnak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%) 97
**149. irudia.** Zinemara joan ohi direnak saio-kopuruaren arabera (%) 97
**150. irudia.** Pertsonak zinemara ez joateko arrazoi nagusiaren arabera, lurraldeka (erantzun bat baino gehiago) (%) 98
**151. irudia.** Pertsonak zinema bertze formatu batzuetan kontsumitzeko duten ohituraren arabera (%) 98
**152. irudia.** Zinema bertze formatu batzuetan kontsumitzen dutenak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%) 99
**153. irudia.** Pertsonak bideoak eskuratzeko moduaren eta adin-tartearen arabera (erantzun bat baino gehiago) (%) 99

## 8.

**154. irudia.** Pertsonak taula gaineko ikuskizunekiko interes-mailaren arabera (%) 105
**155. irudia.** Taula gaineko ikuskizunekiko interes-maila, lurraldeka (batez bertzekoa) 105
**156. irudia.** Taula gaineko ikuskizunekiko interes-maila, sexuaren arabera (batez bertzekoa) 105
**157. irudia.** Taula gaineko ikuskizunekiko interes-maila, adin-tartearen arabera (batez bertzekoa) 105
**158. irudia.** Taula gaineko ikuskizunekiko interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batez bertzekoa) 106
**159. irudia.** Pertsonak antzerkira joateko duten ohituraren arabera (%) 106
**160. irudia.** Pertsonak lirikara joateko duten ohituraren arabera (%) 106
**161. irudia.** Pertsonak dantza ikustera joateko duten ohituraren arabera (%) 106
**162. irudia.** Pertsonak bertso-saioetara joateko duten ohituraren arabera(%) 106
**163. irudia.** Antzerkira joan ohi direnak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%) 107
**164. irudia.** Lirikara joan ohi direnak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%) 107
**165. irudia.** Dantza ikustera joan ohi direnak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%) 108
**166. irudia.** Bertso-saioetara joan ohi diren elebiduna, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%) 108
**167. irudia.** Taula gaineko ikuskizunetara joan ohi direnak saio-kopuruaren arabera (%) 109
**168. irudia.** Pertsonak taula gaineko ikuskizunetara ez joateko arrazoi nagusiaren arabera, lurraldeka (erantzun bat baino gehiago) (%) 109
**169. irudia.** Elebidunak azken urtean ikusitako euskarazko taula gaineko ikuskizunen arabera, lurraldeka (%) 110
**170. irudia.** Elebidunak azken urtean ikusitako euskarazko taula gaineko ikuskizunen arabera, sexuaren arabera (%) 110

# 1. TESTUINGURUA: OINARRIZKO ADIERAZLEAK



1.1. Ipar Euskal Herriko biztanleria

1.2. Biztanleria hizkuntz gaitasunaren arabera

1.3. Etxeetako kultur ekipamendua

# TESTUINGURUA: OINARRIZKO ADIERAZLEAK

Kapitulu honek, laburki, Ipar Euskal Herriko kultur ohiturak, jarduerak eta kontsumoa aztertu eta testuinguruan kokatzeko oinarrizko informazioa aurkezten du. Hautatu adierazleek biztanleriari, bere hizkuntz gaitasunari, eta, azkenik, etxeko kultur ekipamenduari egiten diote erreferentzia. Aurkezten diren datuak *Ipar Euskal Herriko Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko inkesta, 2007-2008koak* dira, bertze iturri batzuk zehazten ez badira.

## 1.1. IPAR EUSKAL HERRIKO BIZTANLERIA

Lehenengo eta behin, nabarmendu behar da jarraian adierazten diren populazio datuak, Frantziako estatistika erakundeak (Institut National de la Statistique et des Études Économiques-INSEE) 1999an egindako erroldari dagozkiola eta honez aparte ez dela bertzelako erroldarik egin. Garai hartan, **262.941 biztanle zuen Ipar Euskal Herriak guztira**. Horietatik, gehixeago ziren emazteak gizonak baino (%52,2). Adinari begira, biztanleriaren piramideak adineko pertsonen talde handia erakusten du (%30 baino gehiago dira 55 urtetik gorakoak). Gazteen taldea, berriz, txikiagoa da (%23,9k 15 eta 34 urte arteko adina du).

**1. irudia.** 1999ko Ipar Euskal Herriko biztanleen piramidea, sexuaren eta adinaren arabera (%)




**Iturria:** Estatistikako eta Ekonomi Azterlanetako Estatuko Erakundeak (INSEE), www.datutalaia.net orrialdetik lortuak

**Eragiketa estatistiko honetan, 15 urteko edo gehiagoko biztanleria aztertzen da. Talde horren barruan, 222.661 biztanle daude Ipar Euskal Herrian**. Lapurdik du biztanleria-bolumen handiena (%83,1), segidan Behe Nafarroak (%10,9) eta azkenik Zuberoak (%6,1). Adinari dagokionez, Ipar Euskal Herriko joera bera adierazi dute lurralde guztiek.

**2. irudia.** Ipar Euskal Herriko 15 urteko edo gehiagoko biztanleria lurraldeka 1999 (%)




**Iturria:** Estatistikako eta Ekonomi Azterlanetako Estatuko Erakundeak (INSEE), www.datutalaia.net orrialdetik lortuak

## 1.2. BIZTANLERIA HIZKUNTZ GAITASUNAREN ARABERA

Eusko Jaurlaritzaren *IV. Inkesta Soziolinguistikaren* arabera, **Ipar Euskal Herriko 16 urtetik gorako biztanleriaren ia laurdena elebiduna da.** Biztanleriaren %22,5 ongi mintzatzen da euskaraz eta frantsesez %8,6 elebidun pasiboa da, eta, gehiengoa, %68,9 erdaldun elebakarra.

**3. irudia.** Ipar Euskal Herriko biztanleria hizkuntz gaitasunaren arabera 2006 (%)




**Iturria:** *IV. Inkesta Soziolinguistikoa*. Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza 2006

**Lurralde batetik bertzera, hizkuntz gaitasunei lotutako diferentzia handiak daude.** Behe Nafarroan eta Zuberoan biztanleriaren erdia baino gehiago elebiduna bada (%55,5), Lapurdi barneko aldean proportzioa lau biztanletik batera jaisten da. Biztanle gehien den eskualdean, BABen (Baiona-Angelu-Miarritze), gutxiago dira elebidunak, %8,8 baizik ez.

**4. irudia.** Ipar Euskal Herriko biztanleria hizkuntz gaitasunaren arabera, eremuka 2006 (%)




**Iturria:** *IV. Inkesta Soziolinguistikoa*. Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza 2006

## 1.3. ETXEETAKO KULTUR EKIPAMENDUA

**Ipar Euskal Herriko etxeak kultur ekipamendu estandarrez hornituak dira.** Telebista, irratia, DVD eta musika-katea dira ekipamendu ohikoenak, biztanleriaren %70ek baino gehiagok ditu tresna horiek. Etxebizitzen laurdenak MP3 irakurgailua badu eta bortzetik batek CD grabagailua.

**5. irudia.** Pertsonak etxeko ikus-entzunezko eta soinu-ekipamenduaren arabera (%)




**Hiru etxetarik bik badu Internet konexioa.** Lapurdi da konexio-tasa handiena duen lurraldea (etxeen %67,4). Zuberoarekin (%50,4) konparatuz aldea aipagarria da.

**Banda zabala da Internetera konektatzeko teknologia erabiliena.** Orokorki, Ipar Euskal Herriko biztanleriaren %65 Internetera konektatua da eta horietatik %88k ADSL/RDSI konexioa du. Kable bidezko konexio gutxiago dago (%8,9)

**6. irudia.** Pertsonak etxeko IKT ekipamenduaren arabera lurraldeka (%)



**7. irudia.** Pertsonak sarerako konexio motaren arabera (%)




Oinarria: Biztanleriaren %65ek du Internet konexioa

**Etxeen %95,7n liburuak badira eta %88,8n CDak.** Ipar Euskal Herriko 10 etxetatik 6etan, 50 liburu baino gehiago eta bertze hainbertze CD badira. Etxeen %13 baino gehiagok 300 ale baino gehiagoko liburutegia du.

**8. irudia.** Liburu eta CDren eskuragarritasuna etxeetan (%)




**9. irudia.** Pertsonak etxean duten CD eta liburu kopuruaren arabera (%)




(1) Oinarria: Biztanleriaren %88,8k CDak baditu
(2) Oinarria: Biztanleriaren %95,7k etxean liburuak baditu

# 2. KULTUR OHITURAK, JARDUERAK ETA KONTSUMOA IPAR EUSKAL HERRIAN: EMAITZA NAGUSIAK



2.1. Kultur jarduerekiko interesa

2.2. Biztanleriaren kultur ohiturak

2.3. Kultur jardueren eta kontsumoaren ezaugarriak

2.4. Euskarazko jarduerak eta euskal produktuen kontsumoa

2.5. Interneten erabilera kulturari dagokionez

2.6. Bertze kultur jarduera batzuetan parte hartzea

2.7. Europarekin alderatzea

# 2. KULTUR OHITURAK, JARDUERAK ETA KONTSUMOA IPAR EUSKAL HERRIAN: EMAITZA NAGUSIA

Kapitulu honek Ipar Euskal Herrian egin den estatistika-operazioaren emaitza nagusienen ikuspegi sintetikoa aurkezten du. Kultur jarduerekiko interesean, biztanleriaren ohituretan, ohiko kontsumitzaileen ezaugarrietan, kultur arloan Interneti ematen zaion erabileran, biztanleria elebidunaren kontsumo eta jardueretan, eta, maila afizionatuan gauzatzen diren kultur jardueretan zentratzen da azterketa hau. Azkenik, Europar Batasuneko bertze informazio-iturrietako emaitzekin konparaketa egiten da. Aurkezten diren datuak *Ipar Euskal Herriko Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumo ari buruzko inkesta, 2007-2008*koak dira, txostenetik hartuak dira, bertze iturri batzuk zehazten ez badira.

## 2.1. KULTUR JARDUEREKIKO INTERESA

**Irakurketa eta musika dira Ipar Euskal Herriko biztanleriarengan interes handiena pizten duten kultur jarduerak.** Irakurketarekiko interesa 10etik 7koa da. Irakurketa orokorraren ondotik, liburuak eta egunkariak dira euskarri nagusiak. Musika laugarren lekuan da, batez bertzeko 6,4ko interesarekin, baina egungo musika edo musika klasikoko kontzertuetara joateko interesa apalagoa da: 5,6 eta 4,2 hurrenez hurren. Zinemak 10etik 5 gainditzen du; antzerkia, museoak eta erakusketa-gelak 4 inguruan kokatzen dira. Biztanleria elebidunari dagokionez, bertsolaritzarekiko interesa 3,6an kokatzen da. Dantza ere 3,6 inguruan kokatzen da. Balorazio apalenak arte-galeriek, liburutegiek eta lirikak dituzte.

**10. irudia.** Kultur jarduerekiko interes-maila (batez bertzekoa)




[1] Interesari buruzko balorazioa biztanleria elebidunak soilik egindakoa.

**Kultur jarduerekiko interesak ezberdinak dira lurralde batetik bertzera**: Behe Nafarroan egunkarien irakurketa azpimarragarria da (7,2ko batez bertzekoa), Lapurdin aldiz irakurketa orokorki (7), eta Zuberoan musika orokorki (7,4). Zuberoako biztanleriak aztertutako jarduera gehienekiko interes handiagoa erakutsi ohi du.

**11. irudia.** Kultur jarduerekiko interes-maila Behe Nafarroan (batez bertzekoa)




**12. irudia.** Kultur jarduerekiko interes-maila Lapurdin (batez bertzekoa)




**13. irudia.** Kultur jarduerekiko interes-maila Zuberoan (batez bertzekoa)




[1] Interesari buruzko balorazioa biztanleria elebidunak soilik egindakoa.

## 2.2. BIZTANLERIAREN KULTUR OHITURAK

**Musika entzutea, liburuak irakurtzea eta zinemara joatea dira kultur ohitura hedatuenak.** Azken urtean ia 10etik 9k (%89,8k) entzun du musika, biztanleriaren %74k irakurri ditu liburuak eta %54,2 joan da zinemara.

**14. irudia.** Pertsonak kultur jarduerak gauzatzeko ohituraren arabera, azken urtean, Ipar Euskal Herrian (%)




**Orokorki, kultur ohiturak berdintsuak dira lurralde batean eta bertzean.** Musika entzutea eta liburuak irakurtzea dira kultur jarduera nagusiak kasu guztietan.

Hiru jardueretan diferentzia aipagarriak agertzen dira: kontzertuetara joatea (Zuberoako biztanleriaren %44,1 joatean da eta Behe Nafarroako %16,7), dantza ikustera joatea (Zuberoan %31, Behe Nafarroan %11,1 eta Lapurdin %8,4) eta operara joatea (Zuberoan %16,2 eta Lapurdin %3,1).

[1] Biztanle elebidunei bakarrik egin zaie ohitura honi buruzko galdera.

**15. irudia.** Pertsonak kultur jarduerak gauzatzeko ohituraren arabera, azken urtean, Behe Nafarroan (%)




**16. irudia.** Pertsona kultur jarduerak gauzatzeko ohituraren arabera, azken urtean, Lapurdin (%)




**17. irudia.** Pertsonak kultur jarduerak gauzatzeko ohituraren arabera, azken urtean, Zuberoan (%)




[1] Biztanle elebidunei bakarrik egin zaie ohitura honi buruzko galdera.

**Denbora eskasia da ez joateko arrazoi nagusia.** Zinemara (biztanleriaren %46,7) edo taule gaineko ikuskizunak ikustera (%41) nahi baino gutxiago joaten da, denbora eskasiagatik. Jarduera batzuetara joatea baldintzatzen duen bertze faktore bat kostu ekonomikoa da. Sartzeen prezioa zinemara (biztanleriaren %38,8ren arabera) eta kontzertuetara (%36,1) gehiagotan ez joateko arrazoia da. Azkenik, biztanleriaren %28k uste du ikus-entzunezkoen eskaintza ez dela aski zabala.

**18. irudia.** Kontzertuetara joateko ohitura dutenen artean, gehiagotan ez joateko arrazoiak (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: %78,6 gehiagotan joanen litzateke kontzertuetara

**19. irudia.** Zinemara gehiagotan ez joateko arrazoiak (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: %62,6 gehiagotan joanen litzateke zinemara

**20. irudia.** Taula gaineko ikuskizunetara gehiagotan ez joateko arrazoiak (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: %61,5 gehiagotan joanen litzateke taula gaineko ikuskizunera

## 2.3. KULTUR JARDUEREN ETA KONTSUMOAREN EZAUGARRIAK

**Batez bertze, hilabetean, ohiko irakurleek 2,3 liburu irakurtzen dituzte eta ohiko liburutegi erabiltzaileak 3,5 aldiz joaten dira liburutegira.** Zuberoako biztanleriak du irakurritako liburu-tasa handiena (2,5 liburu hilabetean) eta Lapurdi arinki nabarmentzen da liburutegira joandako aldiei dagokienez (3,6 aldiz hilabetean).

**21. irudia.** Azken hilabetean zenbat joan den liburutegira batez bertze lurraldeka




Oinarria: Joan ohi direnak (biztanleriaren %21,3 joan da liburutegira azken hilabetean)

**22. irudia.** Azken hilabetean zenbat liburu irakurri den batez bertze lurraldeka




Oinarria: Ohiko irakurleak (biztanleriaren %56,4k irakurri ditu azken hilabetean aisiarekin zer ikusia duten liburuak)

**Telebista 26 oren baino gehiagoz ikusten da astean batez bertze, eta irratia 23,5 orenez entzuten da.** Biztanleriak, batez bertze, egunean 3,8 oren eskaintzen dizkio telebista ikusteari eta 3,4 oren irratia entzuteari.

**23. irudia.** Telebista ikusten eta irratia entzuten zenbat oren pasatzen den batez bertze asteko, lurraldeka




Oinarria: Biztanleriaren %95,3k ikusi ohi du telebista

Oinarria: Biztanleriaren %87,9k entzun ohi du irratia

**Grabatutako musika entzun ohi dutenek, astean 11 oren eskaintzen diote jarduera horri.** Lurralde batetik bertzera ez da ezberdintasun handirik.

**24. irudia.** Astean musika entzuten zenbat oren pasatzen den batez bertze lurraldeka




Oinarria: Musika entzun ohi dutenak (biztanleriaren %85,3k egunero, ia egunero edo astero entzuten du musika)

**Zinemara eta antzerkira joateko ohiturak ez dira berdinak.** Zinemako ohiko publikoa (biztanleriaren %38,1), 2,5 aldiz joan da azken hiruhilekoan, batez bertze; antzerkira joan ohi dena (biztanleriaren %7,5), aldiz, 1,4 aldiz joan da azken hiruhilekoan.

**25. irudia.** Azken hiruhilekoan, zinemara zenbat aldiz joan diren batez bertze lurraldeka




Oinarria: Joan ohi direnak (biztanleriaren %38,1 joan da zinemara azken hiruhilekoan)

**26. irudia.** Azken hiruhilekoan, antzerkira zenbat aldiz joan den batez bertze lurraldeka




Oinarria: Ohiko ikusleak (biztanleriaren %7,5 joan da antzerkira azken hiruhilekoan)

**Azken hiruhilekoan liburuak erosi dituzten liburu-irakurleak biztanleriaren %43,1 dira, eta batez bertze, 2,7 ale erosi dituzte.** Musikari dagokionez, biztanleriaren %39,8k erosi du musika azken hiruhilekoan.

**27. irudia.** Azken hiruhilekoan zenbat liburu erosi den batez bertze lurraldeka




Oinarria: Biztanleriaren %43,1ek erosi du libururen bat azken hiruhilekoan

**28. irudia.** Azken hiruhilekoan liburuak irakurri eta erosi dituztenak lurraldeka (%)




**29. irudia.** Azken hiruhilekoan musika erosi dutenak lurraldeka (%)




## 2.4. EUSKARAZKO JARDUERAK ETA EUSKAL PRODUKTUEN KONTSUMOA

**Ipar Euskal Herriko biztanleria elebidunak euskal musika kontsumitzen du.** Azken hilabetean kontzertuetara joan den biztanleria elebidunaren %87 euskal musikako kontzertuetara joan da. Musika erosten dutenen artean, erdiak baino gehiagok euskal musika erosi duela dio. Zuberoan euskal musikaren kontsumoaren eta erosketaren ehunekoa handiagoa da.

**Biztanleria elebiduna euskarazko antzerkia ikustera asko joaten da.** Azken urtean antzerkia ikustera joan den biztanleria elebidunaren %89 euskarazko antzerkiren bat ikustera joan da. **Azken hiruhilekoan irakurri duen 10 irakurle elebidunetatik 4k euskaraz irakurri du.** Biztanleria elebidunaren %60k libururen bat irakurri du azken hiruhilekoan, eta horietatik ia %40k euskaraz irakurri du.

**30. irudia.** Elebidunak azken hiruhilekoan euskal musikaren kontsumoaren arabera lurraldeka (%)




(1) Oinarria: CDan edo bertzeko euskarri batean musika erosi dutenak, elebidunen %59,4

(2) Oinarria: Azken hiruhilekoan kontzertuetara joan direnak, elebidunen %19,6

**31. irudia.** Elebidunak euskarazko kultur jardueren arabera lurraldeka (%)




(1) Oinarria: Azken hiruhilekoan aisiarekin, lanarekin edo ikasketekin zer ikusia duen libururen bat irakurri dutenak, elebidunen %60,3

(2) Oinarria: Azken urtean antzerkira joan direnak pertsonak, elebidunen %25,5

**Ipar Euskal Herriko biztanleria elebiduna gutxi joaten da bertso-saioetara.** Biztanleria elebidunaren %3,7 joan da bertso-saioetara azken hiruhilekoan, eta %8,6 azken urtean.

**32. irudia.** Elebidunak bertso-saioetara joateko duten maiztasunaren arabera (%)



**Biztanleria elebidunaren artean, Interneteko euskarazko edukiaren kontsumoa web guneen kontsultara bideratzen da, gehienbat.** Web guneak eta dokumentazioa kontsultatzea (%34,3) eta musika entzutea edo jaistea (%24,3) dira ohiko jarduerak, euskarazko edukietara jotzen duen biztanleria elebidunaren artean. Lurralde batetik bertzera ez da ezberdintasun handirik, nahiz eta azpimarratzekoa den, Behe Nafarroan, %17,9 blogetan sartzen dela, eta, Zuberoan, %10,5 irakurketa-edukiak dituzten web guneetan.

**33. irudia.** Interneten euskarazko edukietara sartzen diren elebidunak lurraldeka (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Biztanleriaren %37,8k erabiltzen du Internet kultur jarduera bat gauzatzeko

## 2.5. INTERNETEN ERABILERA KULTURARI DAGOKIONEZ

**Biztanleriaren erdiak baino gehiagok kontsumitzen du kultura Interneten.** Ipar Euskal Herriko biztanleriaren ia %58k erabiltzen du Internet kultura kontsumitzeko, bereziki Lapurdin (%61,5). Behe Nafarroan eta Zuberoan, aldiz, gutxiagok erabiltzen du sarea xede kulturaletarako (%57,1ek Behe Nafarroan eta %64,7k Zuberoan).

**Internet bidezko kultur kontsumoak zerikusia du adinarekin.** 44 urte baino gutxiagoko biztanleriaren %70ek baino gehiagok, eta, 15 eta 24 urte arteko %80k baino gehiagok erabiltzen du Internet kultura kontsumitzeko.

**Formakuntza handiena duten pertsonak dira Internet bidez kultura gehien kontsumitzen dutenak.** Ipar Euskal Herrian, unibertsitate-tituludunen %74,4k eta derrigorrezko hezkuntza ondorengo bigarren mailako ikasketak dituen biztanleriaren %61,6k dio Interneten kultura kontsumitzen duela.

**34. irudia.** Pertsonak kultura kontsumitzeko Interneterako sarbidearen arabera lurraldeka (%)



**35. irudia.** Kultura kontsumitzeko Internet erabiltzen dutenak sexua, adina, hizkuntz gaitasuna, ikasketa-maila eta herriaren neurriaren arabera (%)




**Jarduera ohikoenak musika entzutea eta kultur gaiei buruzko web guneak kontsultatzea dira.** Kultura sarean kontsumitu ohi dutenen artean, jarduera ohikoenak musika entzutea (%38,6), kultur gaiei buruzko web guneak kontsultatzea (%37,7), egunkariak irakurtzea (%27,2) eta bideoak eta filmak ikustea (%24,3) dira.

**36. irudia.** Pertsonak Interneteko kultur edukietarako sarbidearen arabera (%)




Oinarria: Biztanleriaren %57,9k Internet erabiltzen du kultura kontsumitzeko

## 2.6. BERTZE KULTUR JARDUERA BATZUETAN PARTE HARTZEA

**Ipar Euskal Herriko hamar biztanletatik lauk parte hartzen du kultur jardueretan.** Ipar Euskal Herriko biztanleriaren %42,7k kultur jardueretan parte hartu du azken urtean. Behe Nafarroan biztanleriaren ia erdiak hartzen du parte (%49,1), Lapurdin %42,1ek eta Zuberoan %38,2k.

**37. irudia.** Pertsonak kultur jardueretan izandako parte-hartzearen arabera, azken urtean, lurraldeka (%)




**Musika-tresna bat jotzea da jarduera ohikoena,** kultur jardueraren bat duen biztanleriaren ia laurdenak hautatzen du. Bigarren lekuan pintura dago (%23,1). Lurralde batetik bertzera ezberdintasunak daude. Zuberoan gehien praktikatzen dena dantza da, Behe Nafarroan abesbatzetan kantatzea eta Lapurdin musika-tresna bat jotzea.

**38. irudia.** Azken urtean Ipar Euskal Herrian kultur jardueretarako parte-hartze maila (%)




Oinarria: Biztanleriaren %42,7k parte hartu du azken urtean bertze kultur jarduera batzuetan

**39. irudia.** Azken urtean Behe Nafarroan kultur jardueretarako parte-hartze maila (%)




Oinarria: Biztanleriaren %49,1k parte hartu du azken urtean bertze kultur jarduera batzuetan

**40. irudia.** Azken urtean Lapurdin kultur jardueretarako parte-hartze maila (%)




Oinarria: Biztanleriaren %42,1k parte hartu du azken urtean bertze kultur jarduera batzuetan

**41. irudia.** Azken urtean Zuberoan kultur jardueretarako parte-hartze maila (%)




Oinarria: Biztanleriaren %38,2k parte hartu du azken urtean bertze kultur jarduera batzuetan

**Gazteenek egiten dute kultur jarduera gehien.** 15 eta 34 urte arteko gazteen erdiak kultur jarduera bat egiten du. Adin nagusiagokoek jarduera gutxiago egiten dituzte.batean parte hartzen dute.

**42. irudia.** Azken urtean bertze kultur jarduera batzuetan parte hartu dutenak adinka (%)



**Pintura, musika-tresna bat jotzea eta argazkilaritza dira gazteek gehien egiten dituzten jarduerak.** Hiru jarduera horiek dira 15 eta 24 urte artekoek nahiz 25 eta 34 urte artekoek gehien egiten dituztenak. 64 urtetik goitikoentzat abesbatzetan kantatzeak edo idazteak pisu handia du.

**43. irudia.** Pertsonak azken urtean bertze kultur jarduera batzuetan izandako parte hartzearen arabera, adinka (%)




Oinarria: Biztanleriaren %42,7k azken urtean kultur jarduerak egin ditu

## 2.7. EUROPAREKIN ALDERATZEA

Zati honetan Europako kultur ohituren adierazleak alderatzen dira, Eurostat eta Frantziako *Ministère de la Culture et de la Communication*-en informazioekin. Adierazle homologagarriak hautatu dira, eta informazioaren erreferentzia aldiak 2007. urte inguruan kokatzen dira, baina, hala ere, hainbat iturritatik lortutako datuen irakurketak zuhurtziaz konparatu behar dira, diferentzia metodologikoengatik eta informazioa memento eta garai ezberdinetan bildu zelako.

**44. irudia.** Ipar Euskal Herriko eta Europako kultur adierazleen konparaketa (%)




(1) **Iturria**: *Ipar Euskal Herriko Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko inkesta, 2007-2008*, Kulturaren Euskal Behatokia
(2) **Iturria**: *Eurobarometroa 67.1*, Eurostat, 2007
(3) **Iturria**: *Mini chiffres clés 2008,* Ministère de la Culture et de la Communication.

**Ipar Euskal Herriko biztanleriak Europar Batasunekoak baino liburu gehiago irakurtzen du, baina liburutegira gutxiago joaten da.** Azken urtean libururen bat irakurri duen Ipar Euskal Herriko biztanleriaren ehunekoa Estatu frantsesekoa edo Europakoa baino handiagoa da (%76.9 IEHan, %71 EBean eta %58 Frantzian). Aldiz, liburutegira joateari dagokionez, ehunekoa Europako batez bertzekoa baino apalagoa da (%29 eta %35 EBean).

**Ipar Euskal Herrian eta Estatu Frantsesean zuzeneko ikuskizunetara joaten den biztanleriaren batez bertzekoa berdintsua da.** Azken urtean Ipar Euskal Herrian eta Estatu Frantsesean kontzertuetara eta antzerkira joan direnen ehunekoa berdintsua da. Bi kasuetan, Europar Batasuneko maila baino apalxeagoa da orokorrean.

**Ipar Euskal Herriko biztanleriaren proportzio handiagoa joan da zinemara, Estatu Frantsesarekin eta Europarekin alderatuz.** Ipar Euskal Herrian zinemara joateko batez bertzekoa Europakoa baino hiru puntuz handiagoa da eta Frantziakoa baino zazpi puntuz handiagoa.

# 3. IRAKURKETA ETA LIBURUTEGIAK



3.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

3.2. Datu estatistikoen aukeraketa

# 3. IRAKURKETA ETA LIBURUTEGIAK

## 3.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Irakurketarekiko interesa

**Ipar Euskal Herrian irakurketarekiko interesa handia da**, 10etik 7ko batez bertzekoa. Biztanleriaren %33k baino gehiagok dio irakurketa ainitz interesatzen zaiola (10en gain 9 eta 10 artean puntuatuz). Halaber, kasu guztietan interesa 10en gain 6tik goiti kokatzen da: 6,6 liburuentzat, 6,5 egunkarientzat, 6,1 aldizkarientzat.

**Ikasketa-mailak badu zerikusia irakurketarako interesarekin.** Ikasketa-maila altua dutenek 7,7ko interesa dute irakurketarentzat orokorki eta liburuentzat, eta ikasketarik ez dutenek, aldiz, 10en gain 4,9ko eta 4,1eko interesa, hurrenez hurren. Emazteen interes-maila gizonena baino handiagoa da (7,2 eta 6,7). Era berean, irakurketarako interesa adinarekin handitzen da.

### Irakurtzea eta liburuak erostea

**Ipar Euskal Herriko biztanleriaren erdiak baino gehiagok irakurtzeko ohitura du.** Biztanleriaren %56,4k dio azken hilabetean aisiarekin zerikusia duen liburu bat irakurri duela, eta, gainera, %11,1ek azken hiruhilekoan irakurri du. Bertze muturrean, azpimarratu behar da ehuneko batek ez duela inoiz edo ia inoiz aisiarekin zerikusia duen libururik irakurtzen (%17,2).

**Lapurdiko biztanleek bertze lurraldeetakoek baino irakurketa-maila handiagoa dute.** Lapurdin, ia %60 dira ohiko irakurleak (azken hilabetean aisiarekin zerikusia duen liburu bat irakurri dutenak). Behe Nafarroan eta Zuberoan, aldiz, irakurketa-maila horiek apalagoak dira, %42,5 eta %43,2, hurrenez hurren.

**Unibertsitate-mailako ikasketak dituztenek eta emazteek biztanleriaren batez bertzekoak baino gehiago irakurtzen dute.** Ohiko irakurlearen profila aztertuz, ohartzen gara emazte gehiago dagoela (emazteen %60,3k dio azken hilabetean irakurri duela, eta, gizonen %51,9k), eta unibertsitate-mailako ikasketak dituztenak (%68,1) biztanleriaren batez bertzekoa baino askoz goitiago kokatzen direla (%56,4).

**Irakurtzeko ohitura duen biztanleriak hilabetean 2,3 liburu irakurtzen ditu batez bertze.** Azpimarratzekoa da ere, biztanleria-multzo horren baitan (azken hilabetean liburu bat irakurri duena), ehuneko handi batek azken hilabetean hiru edo lau liburu irakurri dituela (%22,6).

**Biztanleria elebidunaren ia %40k euskaraz irakurtzen duela dio.** Azken hiruhilekoan libururen bat irakurri duen biztanleria elebidunaren ia %40k euskaraz irakurri du. Maila handiena Behe Nafarroakoa da (%46,8) eta apalena Zuberoakoa (%22,3).

**Azken hiruhilekoan liburuak irakurri eta erosi dituen biztanleriak 2,7 liburu erosi ditu batez bertze.** Biztanleriaren %43,1 ordezkatzen duen multzo horren baitan, gehienek liburu bat erosi dute (%52,7k), baina ia %30ek bi edo hiru liburu erosi ditu.

**Komertzio txiki espezializatua da erosketa egiteko leku gustukoena.** Aisiarekin edo lan edo ikasketekin zerikusia duen liburu bat irakurri duen biztanleriaren %45,7k komertzio txikia du gustuko liburuak erosteko, ondotik saltoki handia (%28,6); %11,6k dio erosketa Internet bidez erosten duela.

## Egunkariak eta aldizkariak irakurtzea eta erostea

**Biztanleriaren erdiak baino gehiagok egunkariak irakurtzeko ohitura du, eta hamarretik lauk aldizkariak.** Biztanleriaren %54k egunkariak egunero, ia egunero edo astean 3 edo 4 aldiz irakurtzen ditu, eta %39,9k aldizkariak astean behin gutxienez.

**Biztanleria elebidunaren eta 64 urtetik goitikoen artean gehiago dira egunkariak irakurtzeko ohitura dutenak.** Biztanleria elebidunaren %75ek egunkariak irakurtzeko ohitura du (egunero, ia egunero edo astean 3 edo 4 aldiz); adinka banatuta, 64 urtetik goitikoen artean %66k baino gehiagok irakurri ohi ditu, eta gazteen artean, aldiz, %35,4k. Lurraldeka, azpimarratzekoa da Zuberoako biztanleriaren ia %67,9k eta Behe Nafarroako %64,1ek egunkariak irakurtzeko ohitura duela, Ipar Euskal Herriko batez bertzekoa %54 delarik.

**Aldizkarien ohiko irakurleen artean gehienak herri txikienetako biztanleak dira.** Herri horietako biztanleen %46,6k gutxienez astean behin irakurtzen ditu aldizkariak, eta 25.000 eta 50.000 biztanleko herrietan, aldiz, aldizkarien ohiko irakurleak %34,9 dira. Azpimarragarria da ere ikasketarik gabeko pertsonen %15,8ek soilik duela argitalpen horiek irakurtzeko ohitura, eta Ipar Euskal Herriko batez bertzekoa %39,9koa da.

**Egunkarietan jendarteari buruzko berriak, eta aldizkarietan bihotzeko albisteak eta gertakariak dira ohiko irakurleen artean interes handiena sortzen dutenak.** Egunkariak irakurri ohi dituen biztanleriaren %50,9k dio interes gehien sortzen dien berriak jendarteari buruzkoak direla, eta aldizkarien ohiko irakurleen artean %26,2k kronika soziala eta bihotzeko albisteak ditu gustukoen Bi kasuetan, aipatu interesen artean, politikari buruzko edukiak bigarren postuan ageri dira.

**Biztanleria elebidunak frantsesezko egunkariak eta aldizkariak irakurtzen ditu nagusiki.** Hilabetean aldizkari bat irakurtzen duen biztanleria elebidunaren %83k frantsesez irakurtzen du eta egunkariak astero irakurtzen dituztenen artean %64,4k ere hizkuntza horren aldeko hautua egiten du. Nahiz frantsesezko irakurketa izan nagusi, %27k baino gehiagok bi hizkuntzak uztartzen ditu (euskara eta frantsesa) egunkarien bidez informatzeko mementoan.

**Erostea da oraindik egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko modurik ohikoena.** Nahiz egunkariak irakurtzeko %19k eta aldizkariak irakurtzeko %18,9k doako bideak erabiltzen dituen, erostea da modurik ohikoena.

## Liburutegietara joatea

**Biztanleriaren herenak liburutegiekiko duen interesa ertaina eta oso handia artekoa da.** Biztanleriaren %36,6k dio liburutegiekiko duen interesa ertaina eta oso handia artekoa dela (10en gain 5 eta 10 arteko puntuazioa); bertze muturrean, %56,4k oso interes apala erakusten du. Interesik handiena unibertsitate-mailako ikasketak dituztenek erakusten dute (10en gain 4ko puntuazioa batez bertze).

**Biztanleriaren %21 inguruk du liburutegietara joateko ohitura.** Azken hilabetean liburutegira joan den biztanleriaren artean, %21 baino gehiago da zerbitzu horren ohiko erabiltzailea. Behe Nafarroan eta Zuberoan gutxiago dira liburutegiak erabili ohi dituztenak (%14,3 Behe Nafarroan eta %11,6 Zuberoan), eta, aldiz, Lapurdi batez bertzekoaren gainetik kokatzen da (%22,9).

**Unibertsitate-mailako tituludun pertsonak eta emazteak dira liburutegiak gehien erabili ohi dituztenak.** Emazteek gizonek baino maizago erabiltzen dituzte liburutegiak (emazteen %24,8 joan da azken hilabetean, eta gizonen %17,4). Halaber, unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen artean bertaratzen direnen ehunekoa %30,6 da.

**Liburutegien ohiko erabiltzaileak, hilabetean, batez bertze, 3,5 aldiz joan ohi dira bertara.** Liburutegira maiz joan ohi direnak, hilabetean, batez bertze 3,5 aldiz joaten dira. Gazteagoak (15 eta 24 urte artekoak) dira liburutegietara gehien joaten direnak; hilabetean, batez bertze, 4,4 aldiz joaten dira.

**Liburutegien ohiko erabiltzaileen %24 baino gehiago CDak eta DVDak maileguan hartzeko joaten da.** Nahiz liburutegira hurbiltzeko arrazoi nagusiak irakurketa (liburuena, egunkariena eta aldizkariena) edo liburuak maileguan hartzea izan, biztanleriaren %12,8k dio liburutegira CDak maileguan hartzeko joaten dela eta %11,8k DVDak maileguan hartzeko.

**Ipar Euskal Herrian, liburutegien zerbitzuei dagokienean, hobetu beharko liratekeen alderdi nagusien artean dago etxetik hurbilago izatea.** Biztanleriaren %7k dio hori, eta ehuneko hori %13,3ra eta %21era emendatzen da Behe Nafarroan eta Zuberoan, hurrenez hurren.

**Liburutegiek eskainitako zerbitzua oso ongi baloratzen dute ohiko erabiltzaileek.** Erabiltzaileen %82 baino gehiagok oso ongi baloratzen du liburutegiek eskainitako zerbitzua (10en gain 7 eta 10 artean puntuatuz), eta, horrela, batez bertzeko asebetetze-maila 10en gain 8,2koa da.

## 3.2. DATU ESTATISTIKOEN AUKERAKETA

**45. irudia.** Pertsonak irakurketarekiko interesaren arabera (%)




**46. irudia.** Irakurketarekiko interes-maila, lurraldeka (batez bertzekoa)




**47. irudia.** Irakurketarekiko interes-maila, sexuaren arabera (batez bertzekoa)




**48. irudia.** Irakurketarekiko interes-maila, adin-tartearen arabera (batez bertzekoa)



**49. irudia.** Irakurketarekiko interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batez bertzekoa)




**50. irudia.** Pertsonak liburuak irakurtzeko ohituraren arabera (%)




**51. irudia**. Aisiari buruzko liburuak irakurri ohi dituztenak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hinkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%)




Liburu-irakurtzeko ohitura dutenak (azken hilabetean liburuak irakurri dituztenak)

IPAR EUSKAL HERRIA

**52. irudia.** Irakurtzeko ohitura dutenak hilabetean irakurri duten liburu-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Ohiko Irakurleak (biztanleriaren %56,4k irakurri ditu azken hilabetean aisiarekin zerikusia duten liburuak)

**53. irudia.** Elebidunak euskarazko liburuen irakurketaren arabera, lurraldeka (%)




Oinarria: Aisiarekin, lanarekin edo ikasketekin lotutako liburuak irakurri dituzten elebidunak azken hiruhilekoan, elebidunen %60,3

**54. irudia.** Elebidunak euskarazko liburuen irakurketaren arabera, sexuaren arabera (%)




Oinarria: Aisiarekin, lanarekin edo ikasketekin lotutako liburuak irakurri dituzten elebidunak azken hiruhilekoan, elebidunen %60,3

**55. irudia.** Elebidunak euskarazko liburuen irakurketaren arabera, adin-tartearen arabera (%)




Oinarria: Aisiarekin, lanarekin edo ikasketekin lotutako liburuak irakurri dituzten elebidunak azken hiruhilekoan, elebidunen %60,3

**56. irudia.** Pertsonak azken hiruhilekoan erositako liburuen arabera (%)




Oinarria: Biztanleriaren %43,1ak irakurri eta erosi du libururen bat azken hiruhilekoan

**57. irudia.** Pertsonak liburuak erosteko tokiaren arabera, lurraldeka (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Biztanleriaren %71,3k irakurtzen ditu aisiari, lanari edo ikasketei buruzko liburuak

**58. irudia.** Pertsonak egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko ohituraren arabera (%)



**59. irudia.** Egunkariak irakurri ohi dituztenak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hinkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%)




Egunkariak irakurri ohi dituzten irakurleak (astean 3 edo 4 aldiz, edo abantzu egunero egunkariak irakurri ohi dituztenak)

**60. irudia.** Aldizkariak irakurri ohi dituztenak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%)




Aldizkariak irakurri ohi dituzten irakurleak (aldizkariak, gutxienez, astean behin irakurri ohi dituztenak)

**61. irudia.** Egunkariak interesa sortzen dien albistearen arabera irakurtzen dituztenak (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Biztanleriaren %73,5ek irakurtzen ditu egunkariak, gutxienez, astean behin

**62. irudia.** Aldizkariak zaletasunen arabera irakurtzen dituztenak (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Biztanleriaren %63,6k irakurtzen ditu aldizkariak, gutxienez, hilean behin

**63. irudia.** Elebidunak egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko gustukoago duten hizkuntzaren arabera (%)




(1) Oinarria: Elebidunen %91,1ek irakurtzen ditu egunkariak, gutxienez, astean behin
(2) Oinarria: Elebidunen %65,4k irakurtzen ditu aldizkariak, gutxienez, hilean behin

**64. irudia.** Pertsonak egunkariak eta aldizkariak eskuratzeko moduaren arabera (erantzun bat baino gehiago) (%)




(1) Oinarria: Biztanleriaren %73,5ek irakurtzen ditu egunkariak, gutxienez, astean behin
(2) Oinarria: Biztanleriaren %63,6k irakurtzen ditu aldizkariak, gutxienez, hilean behin

**65. irudia.** Pertsonak liburutegiekiko interes-mailaren arabera (%)




**66. irudia.** Liburutegiekiko interes-maila, lurraldeka (batez bertzekoa)




**67. irudia.** Liburutegiekiko interes-maila, sexuaren arabera (batez bertzekoa)




**68. irudia.** Liburutegiekiko interes-maila, adin-tartearen arabera (batez bertzekoa)




**69. irudia.** Liburutegiekiko interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batez bertzekoa)



**70. irudia.** Pertsonak liburutegira/mediatekara joaten diren maiztasunaren arabera (%)




**71. irudia.** Liburutegira/mediatekara joan ohi direnak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%)




Joan ohi direnak (azken hilabetean liburutegira/mediatekara batera joan diren pertsonak)

**72. irudia.** Liburutegira/mediatekara joan ohi direnak, bisita-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Joan ohi direnak (biztanleriaren %21,3 joan da liburutegira/mediatekara, azken hilabetean)



**73. irudia.** Liburutegira/mediatekara joan ohi direnak, bisita-kopuruaren eta adin-tartearen arabera (%)




Oinarria: Joan ohi direnak (biztanleriaren %21,3 joan da liburutegira/mediatekara, azken hilabetean)

**74. irudia.** Pertsonak liburutegira/mediatekara joateko duten arrazoiaren arabera, lurraldeka (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Biztanleriaren %35,8 joan ohi da liburutegira

**75. irudia.** Liburutegira/mediatekara joatea errazteko zenbait alderdi hobetu behar direla uste dutenak, lurraldeka (erantzun bat baino gehiago) (%)




**76. irudia.** Pertsonak liburutegiaren/mediatekaren asebetetze-mailaren arabera, lurraldeka (%)




Oinarria:Biztanleriaren %35,8 joan ohi da liburutegira

# 4. MUSEOAK ETA ARTE-ZENTROAK



4.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

4.2. Datu estatistikoen aukeraketa

# 4. MUSEOAK ETA ARTE-ZENTROAK

## 4.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Museoekiko eta arte-zentroekiko interesa

**Ipar Euskal Herriko biztanleriaren erdiak baino gehiagok museoekiko duen interesa ertaina eta oso handia artekoa da.** Biztanleriaren %51,7k 5 eta 10 artean puntuatzen du museoekiko bere interesa. Hala ere, batez bertzeko puntuazioa 10en gain 4,2koa da. Erakusketa gelekiko (%3,9) eta arte galeriekiko interesa (%3,4) pixka bat apalagoa da.

**Unibertsitate-mailako tituludunek erakusten dute museoekiko eta arte zentroekiko interes handiena.** Museoekiko, erakusketa salekiko eta arte galeriekiko interes-maila ikasketa-maila txikitu ahala apaltzen da. Beraz, unibertsitate-mailako tituludun pertsonen museoekiko interesa 5,3koa da, eta, 4,9koa erakusketa gelekiko. Ikasketarik gabekoena aldiz 1,8 eta 1,7koa da hurrenez hurren.

**Pertsona helduek interes handiagoa dute museoekiko eta gazteek erakusketa-gelekiko.** Museoekiko interes handiena 45 eta 64 urte artekoek erakusten dute (10en gain 4,6); erakusketa-gelekiko interes handiena, aldiz, 25 eta 34 urte artekoek dute (4,3ko batez bertzekoa).

### Museoetara eta arte zentroetara joatea

**Biztanleriaren %17,4k museo-zentroak bisitatu ditu azken hiruhilekoan.** Erakusketa-gelei eta galeriei dagokienez, %6,2ra jaisten da bisita-kopurua. Hala ere, joan ohi ez direnak (edo oroitzen ez direnak) alde batera utziz, kontuan izan behar da, urtebetean holako establezimendu bat bisitatu ez dutenena dela ehuneko handiena (%28,3 museoak eta %12,6 galeria-gelak).

**Lapurdiko biztanleria, 45 eta 64 urte arteko helduak, eta, unibertsitate-tituludunak dira gehien joaten direnak museoak bisitatzera.** Lapurdin, biztanleriaren %18,4 museo batera joan da azken hiruhilekoan, Behe Nafarroan aldiz %12,4 eta Zuberoan %12. Maiztasun hori 45 eta 64 urte artekoen kasuan ere ageri da, (adin horretakoen %22,2k bisitatu ditu museoak azken hiruhilekoan), belaunaldi gazteagoetan aldiz gutxiago, 15 eta 24 urte artekoen %12,9k). Halaber, museoak bisitatu ohi dituenak unibertsitate-mailako ikasketak ditu: Ipar Euskal Herri osoko ohiko bisitarien ehunekoa %17,4 bada, unibertsitate-mailako ikasketak dituztenena %28,8koa da.

**Museoetako eta arte galerietako edo erakusketetako ohiko bisitarien hiru laurden, behin baizik ez da joan azken hiruhilekoan.** Garai berean, biztanleriaren %23,4 joan da bi aldiz baino gehiago, eta berdintsu arte galeriei eta erakusketei dagokienez (%24,7).

**Frantzia da lurralde erreferentea museoetako bisitei dagokienez.** Ipar Euskal Herriko ohiko bisitarien %42 Estatu Frantsesean kokatutako bertze museo batera joan da, bereziki Behe Nafarroako (%43,4) eta Zuberoako (45,8) biztanleria.

**Azken hiruhilekoan joan direnek, arte museoak bisitatu dituzte gehien.** Ipar Euskal Herri osoko ohiko bisitarien ia %61 arte museoak bisitatzera joaten da, Behe Nafarroan %74,4koa da ehuneko hori. Bertze kategoriei dagokienez, bisita-maila apalagoa da; etnografia- eta antropologia-museoek baizik ez dute interesa pizten (bisiten %11,1).

**Ohiko bisitariek, 10en gain 8,2ko puntuazioarekin baloratzen dute museoekiko asebetetze-maila.** Azken hiruhilekoan museoetara joan den biztanleriaren artean asebetetze-maila handia da, eta hori, balorazioen batez bertzekoetan agertzen da: 8,5 Zuberoan, 8,3 Lapurdin, 7,2 Behe Nafarroan.

## 4.2. DATU ESTATISTIKOEN AUKERAKETA

**77. irudia.** Pertsonak museoekiko eta arte-zentroekiko interes-mailaren arabera (%)




**78. irudia.** Museoekiko eta arte-zentroekiko interes-maila, lurraldeka (batez bertzekoa)




**79. irudia.** Museoekiko eta arte-zentroekiko interes-maila, sexuaren arabera (batez bertzekoa)




**80. irudia.** Museoekiko eta arte-zentroekiko interes-maila, adin-tartearen arabera (batez bertzekoa)



**81. irudia.** Museoekiko eta arte-zentroekiko interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batez bertzekoa)




**82. irudia.** Pertsonak museoetara, arte-galerietara eta erakusketetara joateko duten ohituraren arabera (%)




**83. irudia.** Museoetara joan ohi diren pertsonak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%)




Ohiko bisitariak (azken hiruhilekoan museora joan diren pertsonak)

**84. irudia.** Arte-galerietara eta erakusketetara joan ohi direnak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%)




Ohiko bisitariak (azken hiruhilekoan arte-galerietara eta erakusketetara joan direnak)

**85. irudia.** Museoetara, arte-galerietara eta erakusketetara joan ohi direnak bisita-kopuruaren arabera (%)




**Batez bertzekoa: 1,5**
Oinarria: Ohiko ikusleak (biztanleriaren %17,4 joan da museo batera azken hiruhilekoan)

**Batez bertzekoa: 2,4**
Oinarria: Ohiko ikusleak (biztanleriaren %6,2 joan da arte-galeria eta erakusketa batera azken hiruhilekoan)

**86. irudia.** Museora egindako bisitak tokiaren arabera, lurraldeka (%)




Oinarria: Ohiko ikusleak (biztanleriaren %17,4 joan da museo batera azken hiruhilekoan)

**87. irudia.** Museora egindako bisitak tipologiaren arabera, lurraldeka (%)




Oinarria: Ohiko ikusleak (biztanleriaren %17,4 joan da museo batera azken hiruhilekoan)

**88. irudia.** Museora joan ohi direnak asebetze-mailaren arabera, lurraldeka (%)




Oinarria: Ohiko ikusleak (biztanleriaren %17,4 joan da museo batera azken hiruhilekoan)

# 5. MUSIKA



5.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

5.2. Datu estatistikoaren aukeraketa





# 5. MUSIKA

## 5.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Musikarekiko interesa

**Ipar Euskal Herriko biztanleriak musikarekiko orokorki duen interesa 10en gain 6,4koa da batez bertze.** Biztanleriaren %35,5ek musikarekiko interes handia erakusten du. Musika motei dagokienez, ezberdintasunak ageri dira: musika klasikoko kontzertuetara joateko interesa apala da (%42,1ek dio bere interesa oso apala dela), aldiz, biztanleriaren erdiak dio egungo musikako kontzertuetara joateko duen interesa oso handia dela.

**Zuberoa da musikarekiko interes handiena erakusten duen lurraldea.** Lurralde horretako puntuazioen batez bertzekoaren arabera, musikarekiko interesa 10en gain 7,4koa da, eta Ipar Euskal Herri osoko batez bertzeko interesa gainditzen du (6,4).

**Helduen interesa handiagoa da musika klasikoarentzat, eta, gazteena, egungo musikarentzat.** Helduek musika klasikoko kontzertuetara joateko interes handiagoa dute (64 urtetik goitiko biztanleriaren 10etik 5,3k), 34 urtetik beheitiko biztanleriak aldiz, nahiago du egungo musika (10en gain 7 inguruk).

### Musika entzutea

**Biztanleriaren %85,3k musika entzun ohi du.** %67,1k egunero entzuten du eta %18,2k astero; beraz, Ipar Euskal Herriko biztanleriaren artean musika entzutea jarduera arrunta da. Lapurdin, biztanleriaren %86,5ek musika entzuten du, Behe Nafarroan, aldiz, %79,6k, eta, Zuberoan %79,1ek.

**Gazteek helduek baino maizago entzuten dute musika.** 25 eta 34 urte artekoen %99,1ek maiz entzuten du musika; aldiz, 64 urtetik goitikoen %72,2k.

**Musika entzun ohi dutenen artean, %63k, astean sei oren baino gehiagoz egiten du,** eta, %32,1ek hamar orenak gainditzen ditu. Musika entzun ohi dutenek (gutxienez astero entzuten dutenek), astean batez bertze 11 oren inguruz egiten dute.

**Gazteek entzuten dute musika gehien.** Musika entzun ohi dutenen artean, 15 eta 24 urte artekoak nabarmentzen dira, asteko 13 oreneko batez bertzekoarekin (%47,2k 10 oren baino gehiago).

**Irratia da musika entzuteko bide erabiliena,** musika entzun ohi dutenen %66,8k erabiltzen du. Bigarren lekuan musika-katea dator (%56,9), eta, erabiltzaile gutxiagorekin, ordenagailua (%27).

**Gazteenen euskarriari dagokionez, kontsumo-eredu ezberdinak dituzte.** 15 eta 24 urte artekoek ordenagailua (%54,1ek, biztanleriaren batez bertzekoa %27 delarik) eta MP3 irakurgailua (%41,2k, biztanleriaren batez bertzekoa %12 delarik) erabiltzen dute irratiaz gain.

**Helduek musika klasikoa entzuten dute, gazteek pop-rocka.** Gazteek gustukoen dituzten estiloak pop-rocka (15 eta 24 urte arteko gazteen %61,2) eta disko/teknoa (%31,7) dira; helduek aldiz nahiago dute musika klasikoa (64 urtetik goitikoen %53,9). Adin guztietaroak dute gustuko musika tradizionala: gazteen %16,9k gustuko musikaren artean hirugarren lekuan kokatzen du, eta, 64 urtetik goitikoen %35,6k bigarren lekuan.

**Elebidunak asko entzuten du euskal musika,** bereziki Lapurdin (%96,4) eta Zuberoan (%96,8) 25 eta 34 urte artekoek (%98,5k euskal musika entzun ohi du) eta 45 eta 54 urte artekoek (%98,5) entzuten dute gehien. Gazteenen ehunekoa apalxeagoa da, baina, kontuan izan behar da maila oso handia dela (%95,9).

## Musika erostea

**Ipar Euskal Herriko biztanleriaren hamarretik lauk musika erosi du azken hiruhilekoan** (%39,8) Aldiz, %33,2k dio ez duela inoiz edo ia inoiz musikarik erosi.

**Ikasketa-mailak zerikusia du musika-erosketa mailarekin.** Bigarren mailako edo goi-mailako ikasketak dituenak du erosketa-maila handiena (unibertsitate-mailako ikasketadunen %44,8k musika erosi ohi du), ikasketarik gabekoek, aldiz, ez dutela inoiz edo ia inoiz musikarik erosten diote.

**Pop-rocka da gehien erosten den musika-estiloa.** Noizbait musika erosi duenaren %26,9k gustukoen duen estiloa da. Erosketen bigarren lekuan euskal musika tradizionala kokatzen da (%20,7).

**Musika denda espezializatuetan erosten da gehien.** Noizbait musika erosi duenaren erdiak baino gehiagok, %53,5k zehazki, nahiago du komertzio txikia musika erosteko, Behe Nafarroan gehienbat (%56,3 Behe Nafarroan, %53,3 Lapurdin eta %52,9 Zuberoan).

**Internet bidez musika erostea bide berria da gazteen artean.** Ipar Euskal Herrian Internet bidez musika erostea zabaltzen ari den bidea da 25 eta 45 urte artekoen artean. Kasu horietan, ia %10ek erabiltzen du bide hori musika erosteko, biztanleria osoaren ehunekoa %6,9 delarik.

**Noizbait musika erosi duten elebidunen erdiak baino gehiagok euskal musika erosi dute,** zehazki %55,3k. Sexuaren araberako ezberdintasunak badira: Emazteen %65,1ek mota horretako musika erosten du, aldiz, gizonen %48,2ek. Azpimarratzekoa da ere musika erosi duten gazteen %69k euskal musika erosi dutela.

## Kontzertuetara joatea

**10etik hiru kontzertuetara joan da azken urtean;** zehazki biztanleriaren % 29,2. Baina, erdia baino gehiago, %51,7 ez da inoiz edo ia inoiz joaten.

**Zuberoan asko joaten da kontzertuetara, eta, asistentzia-maila Ipar Euskal Herriko batez bertzekoa baino handiagoa da.** Lurralde osorako ohiko asistentziaren batez bertzekoa (azken hiruhilekoan) %15,6koa bada, Zuberoan, %21,8 joaten da zuzeneko musika entzutera, eta, Behe Nafarroan aldiz, %9,3 bakarrik.

**Gazteak joaten dira gehien kontzertuetara.** 15 eta 24 urte artekoen %28 kontzertu batera joan da azken hiruhilekoan (25 eta 34 urte artekoen %25,9), aldiz, biztanleria osoaren %15,6. Azpimarratzekoa da ere, 10.000 eta 25.000 biztanle arteko herrietan, azken hiruhilekoan kontzertuetara joan direnen ehunekoa %27 dela.

**Kontzertuetara joan ohi direnen %71,1 kontzertu batera bakarrik joan da azken hiruhilekoan.** %14,6 bi kontzertutara, %6,2 hiru edo lautara, eta, %8,2 lau baino gehiagotara.

**Kontzertuetara joan ohi den publikoak pop-rocka eta euskal musika tradizionala ditu gustukoen.** Azken hiruhilekoen kontzertu batera joan direnen % 37,3 pop-rock kontzertuetara joan dira eta %29,7 euskal musika tradizionaleko kontzertuetara.

**Kontzertuetara maizago ez joateko arrazoi nagusiak, kostu ekonomikoa eta eskaintza apala dira.** %36,1ek kontzertuetara gutxiago joateko arrazoia kostu ekonomikoa dela dio, eta, %35,9k dio eskaintza apalegiagatik dela.

**Azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren elebidunen %86,9 euskal musikako kontzertuetara joan dira.** Biztanleria elebidun gaztea (15 eta 24 urte arteko %97,3 joaten da, eta, 25 eta 34 urte arteko %94,6) eta 45 eta 54 urte artekoa da gehien joaten dena.

## 5.2. DATU ESTATISTIKOAREN AUKERAKETA

**89. irudia.** Pertsonak, musikarekiko interes-mailaren arabera (%)




**90. irudia.** Musikarekiko interes-maila, lurraldeka (batez bertzekoa)




**91. irudia.** Musikarekiko interes-maila, sexuaren arabera (batez bertzekoa)



**92. irudia.** Musikarekiko interes-maila, adin tartearen arabera (batez bertzekoa)




**93. irudia.** Musikarekiko interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batez bertzekoa)




**94. irudia.** Pertsonak musika entzuteko ohituraren arabera (%)



**95. irudia.** Musika entzun ohi dutenak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%)




Musika entzun ohi dutenak (egunero edo ia egunero, edo astero musika entzuten dutenak)

**96. irudia.** Musika entzun ohi dutenak astean entzuten duten oren-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Misika entzun ohi dutenak (biztanleriaren %85,3k egunero, ia egunero edo astero entzuten du musika)

**97. irudia.** Musika entzun ohi dutenak astean entzuten duten oren-kopuruaren eta adin-tartearen arabera (%)




Oinarria: Musika entzun ohi dutenak (biztanleriaren %85,3k egunero, ia egunero edo astero entzuten du musika)

**98. irudia.** Musika entzun ohi dutenak erabiltzen dituzten medioen arabera (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Musika entzun ohi dutenak (biztanleriaren %85,3k egunero, ia egunero edo astero entzuten du musilka)

**99. irudia.** Musika entzun ohi dutenak erabiltzen dituzten medioen eta adin-tartearen arabera (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Musika entzun ohi dutenak (biztanleriaen %85,3k egunero, ia egunero edo astero entzuten du musika)

**100. irudia.** Musika entzun ohi dutenak musika entzun ohi duten tokiaren arabera (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Musika entzun ohi dutenak (biztanleriaren %85,3k egunero, ia egunero edo astero entzuten du musika)

**101. irudia.** Musika entzun ohi dutenak musika entzun ohi duten tokiaren eta adin-tartearen arabera (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Musika entzun ohi dutenak (biztanleriaren %85,3k egunero, ia egunero edo astero entzuten du musika)

**102. irudia.** Musika entzun ohi dutenak beren zaletasunen arabera (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Musika entzun ohi dutenak (biztanleriaren %85,3k egunero, ia egunero edo astero entzuten du musika)

**103. irudia.** Musika entzun ohi dutenak beren zaletasunen eta adin-tartearen arabera (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Musika entzun ohi dutenak (biztanleriaren %85,3k egunero, ia egunero edo astero entzuten du musika)

**104. irudia.** Elebidunak euskal musika entzuteko ohituraren arabera, lurraldeka (%)




Oinarria: Elebidunen %77,7k entzun ohi du euskal musika

**105. irudia.** Elebidunak euskal musika entzuteko ohituraren arabera, sexuaren arabera (%)




Oinarria: Elebidunen %77,7k entzun ohi du euskal musika

**106. irudia.** Elebidunak euskal musika entzuteko ohituraren arabera, adin-tartearen arabera (%)




Oinarria: Elebidunen %77,7k entzun ohi du euskal musika

**107. irudia.** Pertsonak musika erosteko ohituren arabera (%)




**108. irudia.** Musika erosi ohi dutenak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%)




Musika erosi ohi dutenak (azken hiruhilekoan musika erosi dutenak)

**109. irudia.** Pertsonak erosi ohi duten musika-motaren arabera (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Biztanleriaren %64,6k erosi du noizbait musika CD edo bertzelako euskarri batean

**110. irudia.** Pertsonak erosi ohi duten musika-motaren eta adin-tartearen arabera (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Biztanleriaren %64,6k erosi du noizbait musika CD edo bertzelako euskarri batean

**111. irudia.** Pertsonak musika erosteko tokiaren arabera, lurraldeka (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Biztanleriaren %64,6k erosi du noizbait musika CD edo bertzelako euskarri batean

**112. irudia.** Pertsonak musika erosi ohi duten tokiaren eta adin-tartearen arabera (%)




Oinarria: Biztanleriaren %64,6k erosi du noizbait musika CD edo bertzelako euskarri batean

**113. irudia.** Elebidunak euskal musika erosteko ohituraren arabera, lurraldeka (%)




Oinarria: Biztanleria elebidunaren %59,4k erosi du noizbait musika CD edo bertzelako euskarri batean

**114. irudia.** Elebidunak euskal musika erosteko ohituraren eta sexuaren arabera (%)




Oinarria: Biztanleria elebidunaren %59,4k erosi du noizbait musika CD edo bertzelako euskarri batean

**115. irudia.** Elebidunak euskal musika erosteko ohituraren eta adin-tartearen arabera (%)




Oinarria: Biztanleria elebidunaren %59,4k erosi du noizbait musika CD edo bertzelako euskarri batean

**116. irudia.** Pertsonak musika-kontzertuetara joateko ohituraren arabera (%)




**117. irudia.** Musika-kontzertuetara joan ohi direnak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%)




Musika kontzertuetara joan ohi direnak (azken hiruhilekoan musika-kontzertu batera joan direnak)

**118. irudia.** Kontzertuetara joan ohi direnak azken hiruhilekoko kontzertu-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Musika-kontzertuetara joan ohi direnak (biztanleriaren %15,6 joan da kontzertu batera azken hiruhilekoan)

**119. irudia.** Kontzertuetara joan ohi direnak musika-motaren arabera (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Musika-kontzertuetara joan ohi direnak (biztanleriaren %15,6 joan da kontzertu batera azken hiruhilekoan)

**120. irudia.** Kontzertuetara joan ohi direnak musika-motaren eta adin-tartearen arabera (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Musika-kontzertuetara joan ohi direnak (biztanleriaren %15,6 joan da kontzertu batera azken hiruhilekoan)

**121. irudia.** Kontzertuetara joan ohi direnak kontzertuak entzun ohi dituzten tokien arabera, lurraldeka (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Musika-kontzertuetara joan ohi direnak (biztanleriaren %15,6 joan da kontzertu batera azken hiruhilekoan)

**122. irudia.** Pertsonak kontzertuetara ez joateko arrazoi nagusiaren arabera, lurraldeka (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Ohiko ikusleen %78,6 gehiagotan joanen litzateke kontzertuetara

**123. irudia.** Euskal musikako kontzertuetara joaten diren elebidunak, lurraldeka (%)




Oinarria: Elebidunen %19,6 joan da kontzertuetara azken hiruhilekoan

**124. irudia.** Euskal musikako kontzertuetara joaten diren elebidunak, sexuaren arabera (%)




Oinarria: Elebidunen %19,6 joan da kontzertuetara azken hiruhilekoan

**125. irudia.** Euskal musikako kontzertuetara joaten diren elebidunak, adin-tartearen arabera (%)




Oinarria: Elebidunen %19,6 joan da kontzertuetara azken hiruhilekoan

# 6. IKUS-ENTZUNEZKOAK



6.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

6.2. Datu estatistikoen aukeraketa

# 6. IKUS-ENTZUNEZKOAK

## 6.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Telebista

**Ipar Euskal Herriko biztanleriak batez bertze 4,4 orenez ikusten du telebista lanegunetan.** Azpimarratu behar da %27k 5 oren baino gehiagoz ikusten duela telebista lanegunetan. Asteburuan telebista aitzinean pasatako orenak apalagoak dira (2,3 oren); larunbata, igande eta festa egunetako orenen batez bertzekoa berdina da.

**Helduak dira telebista gehien ikusten dutenak, izan dadin astean zehar edo asteburuetan.** 64 urtez goitikoek telebista aitzinean pasatako orenen batez bertzekoa ia 5 orenekoa da (4,9) lanegunetan eta 2,5 asteburuetan eta festa egunetan.

**Ipar Euskal Herriko ohiko telebista begiraleek albisteak dituzte gustukoen.** Telebista ikusi ohi dutenen %61,5ek dio albisteak dituela gustukoen. Bigarren lekuan datoz filmak (biztanleriaren %50,9) eta dokumentalak (41,3).

**Telebista ikusi ohi dutenen artean, interesak ezberdinak dira adinka.** 45 eta 54 urte artekoek nahiago dituzte albisteak (%70,6) eta dokumentalak (%55,4), aldiz, gazteagoek filmak (25 eta 34 urte artekoen %68,1).

### Irratia

**Batez bertze irratia 4 orenez entzuten da lanegunetan.** Ipar Euskal Herrian irratia entzun ohi dutenek (%87,9), batez bertze 4 orenez entzuten dute lanegunetan, aldiz, larunbatetan kopurua 1,8ra apaltzen da, eta, festa egun eta igandetan 1,7ra.

**Zuberoako biztanleak eta helduak dira irratia gehien entzuten dutenak.** Zuberoan, batez bertzekoa baino gehiago entzuten da irratia. Lanegunetan 4,8 orenez entzuten da, eta, asteburuetan eta festa-egunetan 2,3 orenez. Gauza bera gertatzen da helduei dagokienez, batez bertzekoa baino gehiago entzuten dute. 55 urte baino gehiagokoek entzuten dute gehien irratia astean zehar (lanegunetan 55 eta 64 urte artekoek 4,7 orenez eta 64 urte baino gehiagokoek 4,4 orenez, batez bertzekoa 4 orenekoa delarik).

**Musika da Ipar Euskal Herriko irrati entzuleek gustukoena duten saio-mota.** Irratia entzun ohi dutenek (ia %67) musika-saioak nahiago dituztela diote. Bigarren lekuan albisteak datoz (%54,6) eta aktualitateari buruzko erreportaiak hirugarren lekuan daude (%31,4).

**Emazteek nahiago dute musika eta gizonek albisteak.** Emazteek, gizonek ez bezala, nahiago dituzte musika-saioak (%67,8), albisteei dagokienez, kontrakoa gertatzen da (gizonen %58,5 eta emazteen %50,9).Diferentzia handienak kirol-saioekin agertzen dira (gizonen %17,1, aldiz, emazteen %6,6).

**Gazteek dute musikarako zaletasun handiena.** Gazteenek irratian musika-saioak entzuten dituzte gehien (15 eta 24 urte artekoen %87,1ek musika-saioak ditu gustukoen), helduek aldiz nahiago dituzte albistegiak (55 eta 64 urte artekoen %67,7) eta aktualitateari buruzko erreportaiak (%36,2).

## Euskarazko telebista eta irratia

**Ipar Euskal Herriko 4 teleikusle elebidunetatik ia 1ek denboraren %25 baino gehiago pasatzen du telebista euskaraz ikusten.** Lanegunetan, elebidunen %24k denboraren %25 baino gehiago pasatzen du telebistan euskarazko saioak ikusten. Aste buruetan eta festa-egunetan teleikusleen ehuneko hori apaltzen da: %23,2 larunbatetan eta %22,5 igandeetan eta festa-egunetan.

**Ipar Euskal Herriko entzuleen erdiak baino gehiagok irratia euskaraz entzuten du.** Entzule elebidunen %53,5ek denboraren %25 baino gehiagoz euskaraz entzuten du irratia. Azpimarratzekoa da, gainera, %14,7k euskaraz bakarrik entzuten duela irratia. Ehuneko horiek lanegunetan entzuten dena neurtzen dute, baina berdintsuak dira larunbatetan (%48,6), igandeetan eta festa-egunetan (%46,6).

## 6.2. DATU ESTATISTIKOEN AUKERAKETA

**126. irudia.** Telebista ikusten pasatako orenak (%)




Oinarria: Biztanleriaren %95,3k ikusi ohi du telebista

**127. irudia.** Telebista ikusten pasatako orenak lurraldeka (batez bertzekoa)







Oinarria: Biztanleriaren %95,3k ikusi ohi du telebista

**128. irudia.** Telebista ikusten pasatako orenak sexuaren arabera (batez bertzekoa)




Oinarria: Biztanleriaren %95,3k ikusi ohi du telebista

**129. irudia.** Telebista ikusten pasatako orenak adin-tartearen arabera (batez bertzekoa)




Oinarria: Biztanleriaren %95,3k ikusi ohi du telebista

**130. irudia.** Telebista ikusten pasatako orenak hizkuntz gaitasunaren arabera (batez bertzekoa)




Oinarria: Biztanleriaren %95,3k ikusi ohi du telebista

**131. irudia.** Pertsonak gustuko telebista-saioen eta sexuaren arabera (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Biztanleriaren %95,3k ikusi ohi du telebista

**132. irudia.** Pertsonak gustuko telebista-saioen eta adin-tartearen arabera (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Biztanleriaren %95,3k ikusi ohi du telebista

**133. irudia.** Irratia entzuten pasatako orenak (%)




Oinarria: Biztanleriaren %87,9k entzun ohi du irratia

**134. irudia.** Irratia entzuten pasatako orenak lurraldeka (batez bertzekoa)




Oinarria: Biztanleriaren %87,9k entzun ohi du irratia

**135. irudia.** Irratia entzuten pasatako orenak sexuaren arabera (batez bertzekoa)




Oinarria: Biztanleriaren %87,9k entzun ohi du irratia

**136. irudia.** Irratia entzuten pasatako orenak adin-tartearen arabera (batez bertzekoa)




Oinarria: Biztanleriaren %87,9k entzun ohi du irratia

**137. irudia.** Irratia entzuten pasatako orenak hizkuntz gaitasunaren arabera (batez bertzekoa)




Oinarria: Biztanleriaren %87,9k entzun ohi du irratia

**138. irudia.** Pertsonak gustuko irrati-saioen eta sexuaren arabera (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Biztanleriaren %87,9k entzun ohi du irratia

**139. irudia.** Pertsonak gustuko irrati-saioen eta adin-tartearen arabera (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Biztanleriaren %87,9k entzun ohi du irratia

**140. irudia.** Biztanleria elebidunak euskarazko telebista ikusten pasatako denbora (%)




Oinarria: Elebidunen %94,0k ikusi ohi du telebista

**141. irudia.** Biztanle elebidunek euskarazko irratiak entzuten ematen duten denbora (%)




Oinarria: Elebidunen %91,5k entzun ohi du irratia

# 7. ZINEMA



7.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

7.2. Datu estatistikoen aukeraketa





# 7. ZINEMA

## 7.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Zinemarekiko interesa

**Ipar Euskal Herrian zinemarekiko interesa 10en gain 5,8koa da.** Gehienek interes handia (%32,2) edo oso handia (18,5) erakusten dute.

**Unibertsitate-mailako tituludun gazteak dira interes handiena erakusten dutenak.** Gazteenek (15 eta 24 urte artean), 10en gain 7ko interesa duela diote, eta, unibertsitate-mailako ikasketadunek 6,7koa.

### Zinemara joatea

**Hamar biztanletik lau zinemara joan da azken hiruhilekoan.** %25,8 azken hilabetean joan da, eta, azken hiruhilekoan joan direnei gehitzen zaie (%12,3). Horrela, Ipar Euskal Herriko biztanleriaren %38,1ek zinemara maiz joaten dela uste du. Lapurdin zinemara joan ohi direnak %40,5 dira, aldiz, Zuberoan %25, eta, Behe Nafarroan %26.

**Zinemara joan ohi direnen kopurua ikasketa-mailarekin emendatzen da eta adinarekin jaisten da.** Unibertsitate-mailako ikasketadunen %50,5 zinemara joan da azken hiruhilekoan, aldiz, ikasketarik gabekoen %2,1. Adinka, 15 eta 24 urte artekoen %61,4 joan da azken hiruhilekoan, aldiz, 64 urtetik goitikoen %20,6.

**Zinemara joan ohi direnak 2,5 aldiz joan dira batez bertze, hiruhilekoan.** %54,6 hiruhilekoan behin joaten da, baina ia %17 3 eta 4 aldiz joaten da. Bertze puntan, 10 aldiz baino gehiago joaten direnak daude, zinemara joan ohi direnen %2,2 dira.

**Denbora eskasia da zinemara ez joateko arrazoi nagusia**. Zinemara maizago joan nahi luketenen artean (%62,6), %46,7k dio arrazoi nagusia denbora eskasia dela. Faktore hori are nabarmenagoa da Behe Nafarroan eta Zuberoan. Lurralde horietan, hurrenez hurren, biztanleriaren %61,1ek eta % 63,1ek dio denbora eskas duela. Kostu ekonomikoa %38,8k aipatzen du.

## Zinema bertze formatu batzuetan kontsumitzea

**Ipar Euskal Herriko hamar biztanletatik zazpik zinema bertze formatu batzuetan ikusten dute, hala nola DVDan edo bideoan.** Formatu horietan gehien kontsumitzen dutenak gazteak (15-24 urte artekoen artean %93 eta 25-34 urte artekoen artean %86) eta bigarren hezkuntzako (%72) eta unibertsitate-mailako ikasketak (%77,9) dituztenak dira.

**Bideoak ikusteko modurik arruntena familian eta lagunartean maileguan hartzea da.** Bideoak tarteka ikusten dituztenen artean, %45,1ek lagunei eta familiakoei maileguan hartzen dizkie eta %39,1ek erosi egiten ditu. Hirugarren aukera alokairuan hartzea (%22,7) eta Internetetik jaistea (%17,3) dira. Aukera horietan ezberdintasun handiak kausitzen dira adinaren arabera. Internetetik jaistea ohikoa da 15 eta 24 urte arteko gazteen artean (%42,5), eta aldiz, ehuneko hori apaltzen da gainerateko adin-tarteetan.

## 7.2. DATU ESTATISTIKOEN AUKERAKETA

**142. irudia.** Pertsonak zinemarekiko interes-mailaren arabera (%)




**143. irudia.** Zinemarekiko interes-maila, lurraldeka (batez bertzekoa)




**144. irudia.** Zinemarekiko interes-maila, sexuaren arabera (batez bertzekoa)




**145. irudia.** Zinemarekiko interes-maila, adin-tartearen arabera (batez bertzekoa)




**146. irudia.** Zinemarekiko interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batez bertzekoa)



**147. irudia.** Pertsonak zinemara joateko duten ohituraren arabera (%)




**148. irudia.** Zinemara joan ohi direnak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%)




Ohiko ikusleak (azken hiruhilekoan zinemara joan direnak)

**149. irudia.** Zinemara joan ohi direnak saio-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Ohiko ikusleak (biztanleriaren %38,1 joan da zinemara azken hiruhilekoan)

**150. irudia.** Pertsonak zinemara ez joateko arrazoi nagusiaren arabera, lurraldeka (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Biztanleriaren %62,6 gehiagotan joanen litzateke zinemara

**151. irudia.** Pertsonak zinema bertze formatu batzuetan kontsumitzeko duten ohituraren arabera (%)



**152. irudia.** Zinema bertze formatu batzuetan kontsumitzen dutenak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%)




Zinema bertze formatu batzuetan kontsumitzen duten pertsonak (egunero edo ia egunero, astean behin baino gehiagotan, asteburuetan, hilean behin baino gehiagotan, edo gutxiagotan)

**153. irudia.** Pertsonak bideoak eskuratzeko moduaren eta adin-tartearen arabera (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Biztanleriaren %69,1ak zinema bertze formatu batzuetan kontsumitzen du (egunero edo ia egunero, astean behin baino gehiagotan, asteburuetan, hilean behin baino gehiagotan edo gutxiagotan)

# 8. TAULA GAINEKO IKUSKIZUNAK ETA BERTSOLARITZA



8.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

8.2. Datu estatistikoen aukeraketa

# 8. TAULA GAINEKO IKUSKIZUNAK ETA BERTSOLARITZA

## 8.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Taula gaineko ikuskizunetarako interesa

**Ipar Euskal Herriko biztanleriaren erdiak antzerkiarekiko erakusten duen interes-maila ertainaren eta oso handiaren artekoa da,** zehazki %49,5. Hala ere, %41ek interes biziki apala erakusten du, eta batez bertzeko interes-maila 4,1 da 10en gain. Dantzarekiko interesa 3,6koa da 10en gain eta lirikarekikoa 2,5ekoa.

**Zuberoan dantza da interes handiena sortzen duen arte eszenikoa.** Dantzak antzerkia edo lirika baino interes-maila handiagoa sortzen du Zuberoan (5,9 10en gain).

**Emazteek gizonek baino interes handiagoa erakusten dute arte eszenikoekiko.** Diziplina guztietan, emazteek, batez bertze, gizonek baino interes handiagoa erakusten dute. Antzerkian 4,4 emazteek eta 3,7 gizonek; lirikan 2,7 eta 2,3; dantzan 3,9 eta 3,1.

### Taula gaineko ikuskizunetara joateko ohitura

**Ipar Euskal Herriko biztanleriaren %15,9 antzerkia ikustera joan da azken urtean**. %10 joan da dantza ikustera eta %4,5 lirika-ikuskizun batera. Ikuskizun hauetara joan ohi direnen artean (azken hiruhilekoan), biztanleriaren %7,5ak antzerkia ikusi du, dantzari dagokionez portzentajea %6,5ekoa da eta, azkenik, lirikaren kasuan %2,1 bertaratu da emanaldietara.

**Dantza, bereziki, Zuberoarekin lotzen den adiera da**. Zuberoko biztanleriaren ehuneko handi bat joan ohi da dantza-ikuskizunetara (ohiko ikusleen %18,4). Behe Nafarroan, antzerkia da adiera nagusia (%8,9), Lapurdin gertatzen den bezala (%7,5); lurralde bi hauek Ipar Euskal Herriko batezbertzekoaren gainetik daude.

**Taula gaineko ikuskizun orotan, txikiagoak diren herriek** (10.000 biztanle baino gutxiago dutenak) **portzentaje altuenak lortzen dituzte ohiko ikusleen artean.** Era berean, adierazgarria da ikuskizun

hauetara joaten den ikuslegoaren gehiengoa elebiduna dela (%10,9 antzerkiaren kasuan, %12 dantzari dagokionez eta %5,5 lirikaren kasuan).

**Unibertsitate-ikasketak dituztenak, arte eszenikoen ohiko publikoaren artean.** Unibertsitate-mailako tituluak dituztenen %11,6 antzerkia ikustera joan da azken hiruhilekoan. Ohiko ikusle gehien dituzten adin-tarteak gazteenak, 15 eta 24 urte artekoak (%12,8) eta helduak dira, 45 eta 43 urte artekoak (%13).

**Antzerkira joan ohi diren 10etik 9 ikuskizun bat ikustera joan da azken hiruhilekoan.** %10,4 soilik joan da bi aldiz edo gehiagotan. Batez bertzekoa 1,4 aldikoa da. Lirikan, ohiko ikusleak, batez bertze, hiruhilekoan 2,2 aldiz joaten dira, eta dantzan 1,6 aldiz.

**Denbora eskasia da arte eszenikoen ikuskizunetara maizago ez joatearen arrazoi nagusia.** Arte eszenikoak ikustera maizago joanen liratekeela diotenen %41arentzat denbora eskasia da maizago ez joatearen arrazoia. Faktore hori are nabarmenagoa da Behe Nafarroan (%57,7) eta Zuberoan (%55,8) eta txikiagoak diren herrietan (10.001 eta 25.000 biztanle arte dituzten herrien %45,5)

**Eskaintza eta kostu ekonomikoa, bertze faktore garrantzitsuak.** Eskaintza ez dela behar adinakoa (%28) edo ikuskizunen kostu ekonomikoa handiegia dela (%27,5) ere badira arte eszenikoez gozatzeko muga. Zuberoan gehiago argudiatzen da eskaintza eskas dela eta, Lapurdin, aldiz, kostu ekonomikoa aipatzen da (%29,3).

**Azken urtean antzerkia ikustera joan den biztanleria elebidunaren %88,8 euskarazko antzerki bat ikustera joan da.** Lapurdin ehunekoa %95,5era iristen da, eta, aldiz, Zuberoan %56,6ra jaisten da.

## Bertsolaritza[1]

**Biztanleria elebidunaren artean, bertsolaritzarekiko interesa 3,6koa da 10en gain**. Gazteenak dira zaletasun gehien adierazten dutenak (4,7). Bertze taula gaineko ikuskizunekin gertatzen den bezala, emazteek gizonek baino interes handiagoa erakusten dute bertso-saioetan (3,9 eta 3,4).

**Ipar Euskal Herrian biztanleria elebidunaren %8,6 zuzeneko bertso-saio batera joan da azken urtean eta %3,7 azken hiruhilekoan**.

[1] Bertsolaritzari buruzko datuak biztanleria elebidunari dagozkionak dira, gainerako diziplina guztietan biztanleria osoa hartu da kontutan.

**Gizonak emazteak baino gehiago joaten dira bertso-saioetara** (%5,6 gizonak dira eta %1,7 emazteak) **eta gazteak ere bai** (25 eta 34 urte arteko elebidunen %8,6 bertsozaleak dira).

**Zuberoa da zaletasun gehien agertu duen lurraldea** (%4,5), Behe Nafarroan ordez, bertsozale gutxiago dago (%2,6).

## 8.2. DATU ESTATISTIKOEN AUKERAKETA

**154. irudia.** Pertsonak taula gaineko ikuskizunekiko interes-mailaren arabera (%)




**155. irudia.** Taula gaineko ikuskizunekiko interes-maila, lurraldeka (batez bertzekoa)




**156. irudia.** Taula gaineko ikuskizunekiko interes-maila, sexuaren arabera (batez bertzekoa)




**157. irudia.** Taula gaineko ikuskizunekiko interes-maila, adin-tartearen arabera (batez bertzekoa)



**158. irudia.** Taula gaineko ikuskizunekiko interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batez bertzekoa)




**159. irudia.** Pertsonak antzerkira joateko duten ohituraren arabera (%)




**160. irudia.** Pertsonak lirikara joateko duten ohituraren arabera (%)




**161. irudia.** Pertsonak dantza ikustera joateko duten ohituraren arabera (%)




**162. irudia.** Elebidunak bertso-saioetara joateko duten ohituraren arabera (%)



**163. irudia.** Antzerkira joan ohi direnak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%)




Ohiko ikusleak (azken hiruhilekoan antzerkira joan direnak)

**164. irudia.** Lirikara joan ohi direnak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%)




Ohiko ikusleak (azken hiruhilekoan lirikara joan direnak)

**165. irudia.** Dantza ikustera joan ohi direnak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, hizkuntz gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%)




Ohiko ikusleak (azken hiruhilekoan dantza ikustera joan direnak)

**166. irudia.** Bertso-saioetara joan ohi diren elebidunak, lurraldearen, sexuaren, adin-tartearen, ikasketa mailaren eta herriaren neurriaren arabera (%)




Ohiko ikusleak (azken hiruhilekoan bertso-saioetara joan diren pertsona elebidunak)

**167. irudia.** Taula gaineko ikuskizunetara joan ohi direnak saio-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Ohiko ikusleak (azken hiruhilekoan taula gaineko ikuskizunetara joan direnak: antzerkia %7,5, lirika %2,1,dantza %6,5 eta bertsolaritza %2,7)

**168. irudia.** Pertsonak taula gaineko ikuskizunetara ez joateko arrazoi nagusiaren arabera, lurraldeka (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Biztanleriaren %61,5 gehiagotan joanen litzateke taula gaineko ikuskizunetara

**169. irudia.** Elebidunak azken urtean ikusitako euskarazko taula gaineko ikuskizunen arabera, lurraldeka (%)




Oinarria: Elebidunen %25,5 joan da antzerki-ikuskizunetara azken urtean

**170. irudia.** Elebidunak azken urtean ikusitako euskarazko taula gaineko ikuskizunen arabera, sexuaren arabera(%)




Oinarria: Elebidunen %25,5 joan da antzerki-ikuskizunetara azken urtean

# 9. METODOLOGIA



# 9. METODOLOGIA

Eragiketa estatistiko honen helburu orokorra da Ipar Euskal Herrian bizi diren 15 urtetik gorako pertsonen egoera aztertzea, ohitura, jarduera eta kontsumo kulturalari dagokiena, batik bat. Jarduera kultural batzuek sortzen duten interesaren, jarduera kulturalen maiztasunaren eta intentsitatearen eta eguneroko kultura-kontsumoaren ezaugarrien irudi erreala izatea da azterketaren helburua.

Inkestaren emaitzak bateragarriak izan daitezke Eurostatek edo Frantziako Ministèrie de la Culture et de la Communication-ek sustatutako ikerketekin, informazio-helburu eta adierazle berak erabili dira eta; hala ere, emaitzak alderatzean, kontuan hartu behar da inkestak ez direla une eta garai berean egin.

## Kontzeptu orokorrak

Oro har, oinarrizko hiru kontzepturi buruzko informazioa eskatu da, eta, ondoren, zeharka erabili da informazio hori aztertutako azpiatal bakoitzean:

**Interes-maila:** galdetutako pertsonak jarduera kultural jakin batzuetarako duen zaletasuna jasotzen du. Informazioa ahalik eta zehatzena izateko, jarduera bakoitzari puntuazio bat emateko eskatu da, 0 eta 10 arteko eskalan.

**Ohitura:** aztertutako pertsonek jarduera kultural batzuen aurrean duten ohiko portaeraren adierazle orokorra da.

**Jarduera:** maiztasunari eta intentsitateari egiten dio erreferentzia —zenbat aldiz joan diren edo zenbat denbora pasatu duten jarduera jakin bat egiten— epealdi jakin baten barruan (azken hiruhilekoa, azken urtea… ).

## Fitxa teknikoa

**EREMU GEOGRAFIKOA**
Ipar Euskal Herria.

**INFORMAZIO-BILKETA**
Telefono bidezko elkarrizketa frantsesez eta euskaraz, galdera-sorta egituratu bidez.
Ikertalde Grupo Consultor-ek egina.

**UNIBERTSOA**
Ipar Euskal Herriko 15 urtetik gorako herritarrak.

**LAGINAREN NEURRIA**
1.338 elkarrizketak .

**LAGINAREN ERRORE-MARJINA**
Laginaren errore-marjina ± %2,7koa da, %95eko konfiantza-mailarekin eta gehienezko indeterminazioaren suposizioarekin (p=q=%50).

**LAGINKETA-PROZEDURA**
Etapa anitzeko laginketa bi etapetan: lehen unitateak (etxebizitzak), telefono-zenbakien ausazko hautaketa bidez. Bigarren unitateak (norbanakoak), sexuaren, adinaren, euskararen ezagutzaren, lurraldearen eta udalerriaren tamainaren arabera.

**INKESTA EGIN ZEN DATA**
2008ko otsailaren 12tik martxoaren 14ra.